



ARABAKO GIZARTE
BERRIKUNTZARAKO FORUA
FORO PARA LA INNOVACIÓN
SOCIAL DE ÁLAVA

ARABAKO GIZARTE BERRIKUNTZAKO JARDUNBIDE EGOKIEN KATALOGOA

2019

2019ko abendua

araba  **álava**
foru aldundia diputación foral



Aurkibidea

Orrialdea

1. SARRERA	3
2. TURISMO IRISGARRIA	4
3. JAZZARTEAN	9
4. BIZITZARAKO MARGOAK	12
5. ETORKIZUNAREN ZIRRIBORROAK ZABALA ESPAZIOAN	15
6. HESI BIRTUALAK	20
7. HIRIKO FRUTA ARBOLAK	28
8. IKUSEZIJA DENA BISTARATZEA.....	32
9. GILTZA ETXEBIZITZETARAKO BITARTEKARITZA	37
10. MIKROKREDITUAK	41
11. BEGIA	45
12. ORGAZ KONDEEN DORRE JAUREGIAREN BIRGAITZEA ETA TURISMORAKO SUSTATZEA	50
13. ZAHARTZE AKTIBOA GENERO IKUSPEGITIK	56
14. HIRIKO ORTU KOLEKTIBOAK.....	61
15. ONGI ETORRI ALDE ZAHARRERA	65
16. LASTO EKOLOGIKOA	68
17. %100 OION	73
18. HEZKUNTZA EMOZIONALA GAZTEENTZAT	78
19. AÑANA OPEN ESKOLA	82
20. BERRIKUNTZA HEZKUNTZA KOMUNITATEAK	86
21. HERRILAGUNTZAILEAK PROGRAMA.....	92
22. EMAKUMEEN TOPAKETA LANDA INGURUAN.....	95
23. ZAHARTZE AKTIBOA ZANBRANAN.....	99
24. AMURRIOKO PERTSONA NAGUSIEN KONTSEILUA	104
25. HAR-EMAN.....	109



1. SARRERA

Arabako Gizarte Berrikuntzarako Foroa (FISA) AGORA izeneko gogoeta eta partaidetza eremu eta prozesutik sortutako ekimenetako bat da. Arabako Foru Aldundiak bultzatzen du 2016. urtetik, eta lurralde historikoko ekonomia, gizarte eta kultura arloko zenbait eragilek parte hartzen dute. Helburua Arabaren etorkizuneko erronkei erantzuten laguntzea da.

FISA foroa zenbait erakundez eta pertsonaz osatuta dago, eta Arabako Foru Aldundiak koordinatzen du. Bere xede nagusia da Araban gizarte berrikuntzaren garapena bideratzen duen ingurune bat sortzen laguntzea, ezinbestekoa baita lurralde hori aldatzeko, gizarte gisa dituen erronka eta aukerei aurre egin diezaien.

Gizarte berrikuntzari buruzko jardunaldi bat egin zen 2018ko urtarrilean, eta hor, FISAKo kideek, **garatzen ari diren gizarte berrikuntzako proiektu eta ekimenei dagokienez, Arabako lurraldearen gaur egungo egoera ezagutu eta mapatu egin behar zutela hauteman zuten**. Katalogo bat egitea proposatu zuten, gizarte berrikuntzako ekimenak jasotzeaz gain, proiektu bakoitzak lan egiten duen arloen eta erantzuten dien erronken arabera kategoriatan banatu ere egiten zituena.

Informazio hori lortuz gero, FISA foroak sinergiak sustatu eta sortu ahalko ditu proiektu eta eragileen artean. Bestalde, proiektu arrakastatsuak beste testuinguru batzuetan kokatu eta etorkizunean ezarri beharreko hobekuntzak eta beharrak aurkitu ahalko ditu. Azken batean, helburua da aldeko testuinguru bat sortzea, kudeaketa ereduak, zerbitzuak, jarduerak edota produktu eta zerbitzu berriak abian jartzeko, izan ere, errepika eta eskala daitezkeen irtenbide eraginkor eta iraunkorrak dituzte. Horrela, aliantzak eta erkidegoaren ahalduntzea sustatzeaz gain, sistemetan aldaketa egokiak sortu ere egingo ditu.

Dokumentu honetan, **Arabako lurraldean gizarte berrikuntzaren arloan aurkitutako 24 ekimen garrantzitsuenak** jasotzen dira. Ekimen hauek aukeratu dira lurralde osoan egindako azterketa baten ondorioz, eta horretan oinarrituz, 152 ekimen aurkitu ziren. FISAK horiek aztertu eta lehenetsi ditu 2019. urtean.

Gasteiz, 2019ko abendua.



2. TURISMO IRISGARRIA

Sailkapena:	Gizarteratzea
Harremanetan jartzeko pertsona:	Yosu Vázquez Peciña
Kargua:	Sortzailea
Web orria:	http://montesolidarios.org/rutas-de-naturaleza/

2.1 Ekimenaren deskribapena

Mendi solidarioen elkarteak irabazteko xederik gabeko erakunde pribatua da, eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako mendi jarduerak sustatu eta antolatzen ditu.

Horretarako, itsuak eta ikusmen urriko pertsonak mendian gidatzen eta edozein menditatik mugikortasun murriztua duten pertsonaka eramateko berezia den *Joëlette* aulkiaren erabileran prestatuta dauden pertsonak ditu elkarteak.

Ibilaldi inklusibo horiek elkartearen helburuan barne hartzen dira, hots, urratsak ematea Araba turismo irisgarriko erreferentzi bihur dadin.

Nork sustatzen du proiektua?

Mendi solidarioen elkarteak eta Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailak.

Nola parte hartzen dute herritarrek?

Ibilbideetan edonork parte har dezake.

- Helduak.
- Haurrak.
- Gazteak.
- Gurasoak.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

Ibilbideak edonork eskura ditzake, eta informazioa web orrian eta gizarte sareetan zabaltzen da. Taldeentzat gehieneko plaza kopurua dago.



Gako hitzak: turismo irisgarria, ikusmen urriko pertsonak, natura, aniztasun funtzionala, normalizazioa, kirola sustatzea, jarduera inklusiboak.

2.2 Aurrekariak

Montes Solidarios elkartearen sortzaileak Mont Blanc-eko Ultra trailean parte hartu zuen 2013. urtean, eta esperientzia horren ondoren, dibertsitate funtzionalen bat zuten pertsoneri mendia hurbildu behar ziela sentitu zuen. Desgaituen gidari eta *Joëlette* aulkiaren pilotu gisa prestatzen hasi zen. 2014. urtean lehen jarduera antolatu zuen eskaladan mugikortasun murriztua zuen pertsona batekin. Lehen aldia zen Estatuan halakorik egiten zela. Azkenean, 2016an elkartea sortu zuen.

Turismo irisgarriko proiektua 2018. urtean hasi zen, Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Sailak finantzatutakoa, zenbait ingurune natural sustatzeko eta irisgarri bihurtzeko. Proiektuak bi urte daramatza martxan eta gero eta jende gehiagok parte hartzen du. Proiektuak ez du inolako egitura inbertsiorik behar, mendiko bidezidorrak eta ibilbideak ez direlako aldatzen irisgarriak izateko. Horretarako, Elkarreak material egokia du jarduera hori egiteko. Jarduera honetan *Joëlette* aulkia eta norabide barra erabiltzen dira.

2.3 Balio bereizgarria

Elkarrearen eginkizuna da, hasiera batean eragozpena eta zailtasuna dena, abentura eta esperientzia bat izatea desgaituentzat. Ezinbestekoa da ibilbidea egiten duten pertsonen gozatzea eta segurtasuna.

Halaber, oso atsegingarria da pertsona horientzat, besteek egiten duten jarduera bat eurak ere egiteko gai direla ikustea. Halaber, garrantzitsua da gizarteak hori posible dela ikus dezala. Hori horrela, elkarreak egoera hori normalizatzeko lan egiten du. Erronka guztiona da, bai egiten duten pertsonena, bai hori egiteko aukera ematen dutenena.

Erabiltzaile askok diote jarduera horiek elkarrearekin egiteak "aldatzen" dituela, balioa ematen dietela, eta beste erronka batzuk gain hartzera bultzatzen dituztela. Eta beren esperientzia lagun eta senideei azaltzen diete; hor hasten da hain zuzen ere elkarre honek gizarteari egiten dion ekarpena: normalizazioa.

Horrez gain, berezko kontzientziazio lana egiten dute ibilbidea hastean, ibilbide bitartean eta ibilbide amaieran jardueran parte hartzen duten pertsonekin. Ingurunearen interpretazioak egiten dira, pertsonak kontzientziatzen dira, gazteekin batik bat lan eginez. Helburua ingurune naturalean ahalik eta eraginik txikiena izatea da.



Bestalde, jarduera horiek familian, lagunekin eta ezezagunekin egitea sustatzen da. Jarduera inklusiboak dira, edozeinentzat. Talde lana da, eta erronka talde guztia ezarri den tokiraino heltzea da. Elkarrekin edozein erronkari egin diezaiokegu aurre.

Eta horrek lotura sortzen du parte hartzen duten pertsonekin: ezagutzea, esperientziak kontatzea, batzuen eta besteen bizipenetatik ikastea, hautematen eta partekatzen diren sentimendu eta sentsazioak. Horrek guztiak, ibilbide batean parte hartzen duten pertsonen alderdi emozionalean batik bat eragitea ekartzen du.

Balio hauek lantzen dira jardueretan:

- Tratu hezkuntza
- Inklusioa
- Ingurumena
- Elkartasuna
- Partaidetza
- Boluntarioria
- Talde lana
- Normalizazioa

2.4 Erantzuten dien erronkak

- Mendia irigarria egitea mugikortasun murriztuko eta ikusmen urriko pertsonentzat.
- Gizarteratzeak, mendia erakusten dio talde oso jakin bati.
- Pertsona horiek mendiaz baldintza berdinetan goza ditzaten normalizatzea.
- Erronka soziala, gizartearen alderdi guztiek parte hartuz, gazteek batik bat, normalizazioa erakutsiz.
- Boluntarioria sustatzea.
- Kirola sustatzea.
- Ikastetxeek tresna hauek ezagutzea. Nafarroan ikastetxe desberdinekin elkarlanean aritzen dira, desgaitasuna duten pertsonen parte har dezaten eta dinamika horiez balia daitezen.

2.5 Alderdi berritzaileak

- *Joëlette aulkia*. Elkarrekin bi aulki ditu.
- Norabide barra. Elkarrekin 7-8 inguru ditu.
- Esperientzia parte-hartzailea; gizarte osoak parte hartzen du.
- Hori guztia irabazi asmorik gabeko elkarrekin baten bidez.
- Talde lana egiten da.



2.6 Eskalagarritasuna

Zenbait modalitatetan eta edozein lurraldetan antola daitekeen proiektua da. Baina horretarako pertsonak prestatu behar dira. Ezin da jarri pertsonen eskura nola tratatu ez dakiten materialik, izan ere, arriskutsua izan daiteke erabiltzaileei begira. Gehienetan, elkarteak Araban aritzen da, baina Pirinioetan eta Kanarietan ere jarduerak egin ditu.

Mota horretako proiektu askorik ez zegoen 2014an, edo gutxienez ez ziren ezagutzen. Baina pixkanaka ezagun bihurtzen ari dira. ONCE erakundeak mendi talde bat du aspaldi Madrilen, itsuekin mendi jarduera asko egiten dituen.

Gaitasun eta erronka berriak sortzen ari dira. Nagusia da jarduera hau profesionalizatu behar dela, beste behar, erronka eta muga batzuk barne hartu ahal izateko. Lehen urratsak ematen hasi dira hori egin ahal izateko. Bestalde, ikusmen urriko pertsonen esperientzian eta eskaeretan oinarrituz, tokiaren interpretazioak egiten hasi dira. Pertsona horiek zentzumen gaitasun handiagoa daukate, eta txoriak sentitu eta entzun ditzakete gidarien laguntzarekin.

2.7 Finantzaketa

Honako erakunde hauek finantzatzen dituzte Arabako jarduerak:

- i. Arabako Foru Aldundia (ibilbide arruntak, Araban egindakoak).
- ii. Vital Fundazioa.
- iii. "Dohaintza pribatuak" eta bazkidearen urteko kuota.

Proiektuaren kostuei dagokienez:

- Bazkideak jardueretarako eramateko autobusak.
- Erabiltzailearentzako materiala.
- Gidari eta boluntarioen dietak.
- Ibilbiderako materiala.
- Prestakuntza-ikastaroak: erabiltzaileentzako materiala, dibertsitate funtzionala duten pertsonen emandako tratua, "persona horien berdintzea".

2.8 Erakunde laguntzaileak

- Vital Fundazioa.
- Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Saila.
- Gasteizko Udala.
- Kirolak kirol denda (arropa gidarientzat, mendirako ekipamendua).
- Biketoki (aulkien mantentze lanak).



- Antartic estudio, zenbait bideo.

2.9 Emaitzak/eraginak

Elkarteko bazkide kopurua:

- Arruntak: 50
- Boluntarioak: 85
- Erabiltzaileak: 20
- Guztira: 155

2019ko jarduerak:

- Emanaldiak, hitzaldiak eta ikastaroak: 7
- Irteera arruntak: 12 ibilbide
- Ametsak betetzeko irteerak: 9 ibilbide
- Irteera Ataria-rekin: 2 ibilbide
- Eskola kiroleko irteera udalekin: 1 ibilbide

2019ko beste jarduera batzuk:

- "Oztoporik gabe" ekimena, irailaren 27, 28 eta 29an.
- Vital Fundazioaren Gaueko martxa solidarioa.
- Mendi Solidarioen III. Jaialdia, urriaren 19 eta 20an.

Irteeretako parte hartzaileak:

- Gutxieneko parte-hartzaile kopurua irteera arrunteko: 20 lagun.
- Batez besteko pertsona kopurua irteera arrunteko: 40 lagun.
- Irteera arruntetan parte hartu zuen dibertsitate funtzionaleko pertsonak: 80 erabiltzaile baino gehiago.



3. JAZZARTEAN

Sailkapena:	Kultura
Harremanetan jartzeko pertsona:	Jesús Castro Santos
Kargua:	Quintanilla Erriberabeitiko alkatea
Web orria:	https://www.elmundo.es/cultura/musica/2019/06/13/5d02223121efa085788b4579.html

3.1 Deskribapena

Diotenez, munduko txikiena da, baina dagoeneko JazzArtean jazz jaialdiaren 12. edizioa antolatu du Arabako Quintanilla Erriberabeiti herri txikiak (21 biztanle daude erroldatuta).

Emanaldiak doan dira eta herriko elizan izaten dira, Kulturgune bihurtu dutena. Beste kontzertu eta tailer batzuk ere egiten dituzte.

Nork sustatzen du proiektua?

Erriberabeitiko Udalak eta Quintanilla Erriberabeitiko administrazio batzordeak.

Nola parte hartzen dute herritarrek?

Kontzeju irekien bidez.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

Jaialdia libre eta doan da; edonor bertara daiteke. Bestalde, proiektu irekia da, eta ekitaldiaren antolaketa lanetan laguntzeko deialdia egiten zaie pertsona guztiei.

Gako hitzak: Jazza, kultura, partaidetza, erkidegoa, dinamizazioa.



3.2 Aurrekariak

Ekimena 2007. urtean sortu zen, Jesús Castrori, Quintanilla Erriberabeitiko administrazio batzordeko lehendakariari, laguntza ekonomikoa udako kultura jardueretarako erabiltzeko aukera sortu zitzaionean. Hasieratik argi zuen lagunduko zuen arloetako bat jazz musika izango zela. Halaber, zinema jarduerak ere antolatzen ditu herriak haurrentzat, arkeologia tailerrak gazteentzat eta musika klasiko edo folk kontzertuak. Bestalde, duela 14 urtetatik San Patrizio eguna ospatzen dute, eta horretarako, Irlandako auzoko baten laguntza izaten dute.

3.3 Balio bereizgarria

Balio bereizgarria jaialdia garatzen den esparru geografikoan batik bat dago. Horerz gain, auzokoen aintzat hartzen duten kultura eskaintza da, hala ere, gero eta partaide gutxiago ditu, eta gero eta zailagoa da herritarrek parte hartzea.

Jazzartean ekitaldiak elizaren birgaitzeari dinamismoa emateko ere balio izan du. Horrela, beste erabilera bat eman dio, eta herriaren ezinbesteko zati bihurtu du. Erronka herria sustatzea izan da beti, ingururako jarduerak eskainiz. Kultura erronka da, baina auzokoei jarduerak eskaintzea ere bada helburua.

Proiektuari esker, ingurukoekiko harremanak hobetu dira. Horrela, udalerrriak alboko udalerriekin bat egin du, eta kultura sentitzen duten pertsonak ere elkartu ditu.

Ekitaldia antolatzean jasangarritasuna oso kontuan hartzen da. Horrela, ez da plastikozko edalontzirik erabiltzen da, eta erabilitako material gehiena birziklatzen da.

3.4 Erantzuten dien erronkak

- Landa herrien hustea.
- Askotariko kultura eta aisialdi eskaintza.
- Erkidegoko lana eta parte-hartzailea.

3.5 Alderdi berritzaileak

Kultura ondarea sustatzea, hala nola Quintanilla Erriberabeitiko eliza, kultura programazio oso eta iraunkorraren bidez. Horrez gain, elkarlanean antolatzen da ekitaldia.



3.6 Eskalagarritasuna

Proiektua une honetan ez desagertzeko borrokatzen ari da.

3.7 Finantzaketa

JazzArtean ekitaldiak 1.000 euro inguruko aurrekontua izan zuen 2019. urtean, Erriberabeitiko udalaren laguntzari Ester, izan eren Quintanilla Erriberabeiti haren mende dago, eta jardueraren % 100 finantzatzen du.

3.8 Erakunde laguntzaileak

Erriberabeitiko Udala, Mirajazz Kultur Elkartea eta Quintanilla Erriberabeitiko administrazio batzordea.

3.9 Emaitzak/eraginak

- Batez besteko ikusle kopurua: 40 eta 70 ikusle artean.
- Artistak:..... 200 musikari baino gehiago 12 edizio hauetan.



4. BIZITZARAKO MARGOAK

Sailkapena:	Kultura
Harremanetan jartzeko pertsona:	José Luis Alonso Quilchano
Kargua:	Andetxako lehendakaria administrazio batzordeko
Web orria:	http://www.antezana.es/pinturas-para-la-vida/el-inicio-la-iglesia-se-cae/pinturas-para-la-vida/

4.1 Ekimenaren deskribapen orokorra

Ekimenaren helburua Andetxako eliza birgaitzea da, narriaduraren ondorioz kultura ondarea gal ez dadin. Horrela, elkarlana sustatzeaz gain, kultura ondarearen alde ere egiten da, eta jarduteko eta bizitzeko toki bat sortzen da herrian.

Nork sustatzen du proiektua?

Andetxako auzokoek.

Nola parte hartzen dute herritarrek?

Aktiboki, proiektua birgaitze fasean proposatzen denetik. Gaur egun, mantendu eta kudeatzen dute Ormandetxa Elkartearen bidez.

Eremua publikoa da eta edonor sar daiteke?

Eremua Andetxako auzoko guztiena da.

Gako hitzak: kultura ondarea, elkarlana, artea.

4.2 Aurrekariak

BIZITZARAKO MARGOAK ekimena sortu zen auzoko asko triste zeudelako, eliza 2005. urtetik itxita zegoelako, teilatuaren egoera txarrarengatik, eta horrek barruan izan zituen ondorioengatik: hezetasunak, harriak erori ziren, istripuak gertatzeko arriskua...



2010. urtean Apezpikutzak lankidetzan konpromisoa hartu zuen birgaitzeko. Orduan, auzoko batek horma irudiz osatutako proiektu bat egiteko proposamena egin zuen, Europan zenbait herrialdeko elizetan egindakoen antzekoak. Eta Xavier Egaña Albizuk egitea proposatu zen, izan ere, Ama Birjinaren ganbaratxoaren korridorean dauden zortzi horma irudiak egin zituen. Artistak, horma-irudien erronka egiteko eskaera onartu zuen, modu altruistan.

Andetxako herriak ekimena onartu, eta lagunduko zuela hitzeman zuen, beharrezkoak ziren baliabideak jarriz eta obra finantzatu. Herri guztia elkartu zen barnealdea egokitzeko lanak egiteko, artista bere lanarekin has zedin. Nabarmentzekoa da krisi ekonomiko betean herriak 50.000 euro inguru artean edo kulturaren inbertitzearen alde egin zuela.

Proiektuaren tamaina kontuan hartuz, elizako arkupetik hasia erabaki zuten, txikia denez, denbora laburrean eta administrazio batzordeak hura egiteko eskura jarri zuen aurrekontuarekin egin zitekeelako. Horrela, herriak pinturari eta estiloei buruz zer irizten duen ere jakin nahi zen, proposatutako diseinua herriak esperotakoarekin bat etor zedin. Arkupeko margoetan Andetxako bizitzaren hainbat alderdi adierazten dira.

Proiektuaren garrantzia zela eta, zenbait profesionalen iritzia eta aholkuak ere jaso ziren, besteak beste:

- José Javier López de Ocariz (Artearen Historiako irakasle eta ikertzailea).
- Diego Bermejo (Irakaslea eta ikertzailea).
- Pablo Corres (Bilbon dagoen EHUko Arte Ederren Fakultatea).
- Edorta Kortadi Olano (Artearen historiako irakaslea, arte kritikaria eta Donostiako Elizbarrutiko Museoaren zuzendaria).
- Juan Ignacio Lasagabaster (Santa Maria Katedrala Fundazioa).

Obran bost fase ezarri ziren; horietatik, lau, elizaren barruan, eta bestea, lehen aipatutako arkupeko fasea. Elizaren barruko lanak 2014. urtean hasi eta 2017an amaitu ziren.

Azkenean, adeitasuna eta lasaitasuna nagusi diren eremua aurkitzen du bisitariak, barnetatzea eragiten du giroa. Horma irudian jai giroa nagusi da, herri ospakizuna, eta alderdi sakratu eta profanoak tartekatzen ditu. Bestalde, gaztaro eta zahartzaroaren inguruko erreferentziak ere egiten ditu, eta ez da ahazten gizakiaren dramaz edo krisiaz, baina itxaropenezko mezu bat igortzen du; sorkuntza berri bati buruz aritzen da.

Gaur egun, kultura jardura egiten dira elizan, baina turismo baliabide gisa erabiltzen da. Igandero bisitak antolatzen dira eta interesa duten taldeak artatzen dira. Lau edo bost pertsonak lan egiten dute behar horiei erantzuteko. Materialak sortu dira bisitetarako. Parte hartzen eta gidekin jarraitzen duten



boluntarioak dira, eta obra erakusten dute. Behar horiei erantzuteko, Ormandetxa elkarteak eratu zuten 2014. urtearen amaieran, auzoko, lagun eta proiektuaren inguruko erakunde laguntzaileen esfortzuak bateratzeko.

Herriko jendeak sortu, sustatu eta kudeatzen du, eta hasierako itzaropenak guztiz gainditu ditu, izan ere, gogoia eta gizartean duen eragina gero eta handiagoa da. Herria bere herri nortasuna ezagutzen ari da, poztasunez, izan ere, hasieran Gasteizko aireportuaren mehatxua zuen, eta geroago, bere ondare txikia uzten ari ziren. Nortasuna berreskuratzen ari da, erkidego egiten duten balioetan oinarrituz.

4.3 Balio bereizgarria

Herria poztasunez ezagutzen ari da bere nortasuna. Horrez gain, ondare eta artearekiko sentimendua eta balioa sustatu da. Ekimen honi esker, herria elkartu da, denek lan egiten dute, elkarlanean. Horrela, dinamismoa eta bizitza handia ematen diote herriari. Jendea oso harro dago lan honetaz.

Eliza itxita izateak herriaren hastapenak gordetzen diren tradizioari uko egitea eta eliza bera erortzea ekartzen du; baita herriaren historia sortu duten kultura eta bizitza erreferenteak galtzea ere. Bere iragana hiltzen uzten du, bere etorkizuna hiltzen duen herria, erkidegoa eta herria eraikitzeke ezinbestekoa den denbora jarraitutasuna apurtzen duelako. Erreferentzia historikorik ez duen herri batek herri izateari uzten dio, eta bizitzeko eremu bihurtzen da.

Erronka horri erantzun nahi dio hain zuzen ere Andetxako San Migel elizan dagoen esku hartze proiektuak: zutik mantentzea, berreraikitzea eta bere arte eta kultura ondarea suspertzea.

Ikuspegi iraunkorra ere hartu nahi izan da, led argiak erabiliz eta barneko klimatizazioari buruzko azterketa bat eginez.



4.4 Erantzuten dien erronkak

- Herriko ondarea hondatzea eta galtzea.
- Erkidegoan lan egitea, helburu berarekin.
- Ezaugarri horretako proiektu bat finantzatzeko zailtasuna.

4.5 Alderdi berritzaileak

- Aholkulari adituz osatutako boluntario taldea.
- Obrarako material egokiak: led argiak, berariazko margoak eta abar.
- Talde lana.
- Horma irudirako erabilitako materialak zehatzak dira, adituek gomendatutakoak.

4.6 Eskalagarritasuna

Proiektu berezia da, eta kasuaren baldintza eta inguruabar oso berezi eta zehatzak gertatu dira. Eskaera bat modu altruistan egitea onartu duen artista ezaguna, arteari buruz dakien erretorea, herriaren baldintzarik gabeko laguntza. Beste herri batzuetako pertsonak hurbildu dira, nola egiten duten eta zein izan den azken emaitza jakiteko.

4.7 Finantzaketa

Proiektu gehiena herriak berak bere baliabideekin finantzatu du.

4.8 Erakunde laguntzaileak

- Vital Fundazioak ekimenean laguntzen du.
- Babesleak izatea aztertzen ari da.
- Herriak lokal zahar bat eskatu dio udalari jatetxe edo tabernaren bat irekitzeko bisitarien zat, obra zein kultura jarduerak ikustera etortzen direnak.

4.10 Emaitzak/eraginak

2018. urtean, turismo bisitak eta ekitaldietako parte hartzaileak kontuan hartuz, 2.919 bisitari zenbatu zituzten.



5. ETORKIZUNAREN ZIRRIBORROAK ETA AZALA ESPAZIOA

Sailkapena:	Kultura
Harremanetan jartzeko pertsona:	Juan Cruz González Tejedó eta Idoia Zabaleta Morán
Kargua:	Sortzaileak
Web orria:	http://www.azala.es/es/

5.1 Ekimenaren deskribapen orokorra

AZALA *buru biko* proiektu da, hau da, alde batetik, kultura proiektua da, eta bestetik, turismo ostaturkoa. Funtsean eta hastapenetatik, sorkuntzarako gunea da.

Lasierrako nekazaritza ingurunean kokatuta dago, eta kultura proiektuari dagokionez, artistak egoteko eta elkartzeko tokia da AZALA. Proiektu honen oinarritzako ardatzak ikerketa, gogoeta eta sorkuntza dira. Arte eszeniko eta performatiboen lurraldean kokatuta dago, eta helburua da bere lurraldeak behin eta berriz galtzea.

Artadi mediterraneoz eta galsoroz osaturiko gune geobotaniko batean kokatuta dago AZALA, eta oso espazio egokia da taldeak egoteko eta hiriko distrazioetatik urruntzeko ingurune bat eskatzen duten ikastaroak antolatzen. Izan ere, kontzentratzeko eta elkarrekin bizitzeko aukera emateaz gain, isiltasuna nagusi da. Halaber, lurraldea ezagutu nahi duen bidaiariarentzat ostaturik egokiena da.

AZALA Lasierran dago. Erriberagoitiko eta Añanako Kuadrillako herri txikia da, 12 biztanle dituena. Proiektuaren izena hitz horren euskarazko bi esanahiekin lotuta dago. AZALAK *larruazala* esan nahi du euskaraz, organismoari bere egiturak osorik mantentzen eta ingurunearen komunikatzen laguntzen dion mintz iragazkorra. AZALAK *azalera* ere esan nahi du euskaraz, lurralde baten hedaturari erreferentzia egiten diona.

AZALAK sorkuntza edota ikerkuntza prozesu bat garatzeko, toki bat eta arreta jartzeko denbora behar duten artista, sortzaile, pentsalari eta eragileak hartzen ditu egoitzan.

Hauek dira egoitza proiektuak hartzeko baldintzetako batzuk: konplizitateak eta jarraitutasun lerroak ezartzea artista egoiliarrentzat; proiektu bakoitzaren



ezaugarrien arabera, egonaldiaren denbora eta maiztasuna finkatzea; egoitzak gurutzatzea aldi berdinean; artista egoiliarren, beste artista batzuen eta bertako agertokiko pertsonen artean elkarrizketa hastea, eta sorkuntza edo ikerkuntza prozesuak partekatzea eta eztabaidatzea, ATE IREKIAK edo atek zabaltzeko jardunaldi esaten diegun kanpoko ikuspegi kritiko batetik.

Bestalde, une honetan, *etorkizunaren zirriborroak* izeneko proiektua garatzen ari da. Proiektu honen bidez, narrazio espekulatiboak sortzen saiatzen dira, gutxi gorabehera urrun dagoen etorkizun batean zer gertatuko litzatekeen jakiteko, eta gaur egun dauden eta gizarteak baztertu dituen aukerak hedatzeko aukera egongo litzatekeen ere jakiteko. Horretarako, egileak gonbidatzen dira, dauden aukera horiekin lan egin dezaten.

Helburua aldaketarako zirriborroen bilduma bat osatzea da, benetako eta irudizko ekintzen gida bat hain zuzen ere. Araban egiten den lehen bilduma; gerokoak, beste toki batzuetan egin daitezke.

Lehen alean, Araba #0, Katixa Agirre idazle gasteiztarrak Errekaleorreko esperientziari buruzko alegia bat idatzi zuen.

Nork sustatzen du proiektua?

Ekimenaren sustatzaileak Juan Cruz González Tejedero eta Idoia Zabaleta Morán dira.

Nola parte hartzen dute herritarrek?

ATE IREKIETAN edo atek zabaltzeko jardunaldietan parte hartuz, horrela, sorkuntza edota ikerkuntza prozesuak kanpoko ikuspegi kritiko batekin partekatuz eta alderatuz. Espazioa sortzen laguntzen ere bai, bai aktiboki parte hartuz, bai proiekturako materiala eta makinak hornituz.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

Bai, gizarte sareetan eta web-orrian.

Gako hitzak: Artea, turismoa, kultura, arte eszenikoak, sorkuntza fabrikak, egoitza artistikoak.



5.2 Aurrekariak

Proiektua 2008. urtean hasi zen, sortzaileetako batek, koreografo profesionala den Idoia Zabaleta Moranek hain zuzen ere, behar pertsonal bat hauteman zuelako. Egoitza artistikoen kontzeptua ezagutu zuen berak, inguruko pertsonen bidez eta honelako moduko beste kasu batzuk irakurriz Europan. Horren ondorioz, antzeko ezaugarriak zituen eremu bat Euskadin sortzea pentsatu zuen. Hala ere, proiektua egiterakoan, lehen arazoak aurkitu zituen izaera juridikoaren inguruan, izan ere, juridikoki, egoitza artistiko gisa eratzeari saiatu zen. Horregatik, landa espazio bat sortzea erabaki zuten. Horrela, bi ildo nagusirekin abian jarri zuten proiektua:

- Egoitza artistikoak. Ingurunearekin batera eta horretarako beharrezkoak diren eremuekin sortzeko tokia. Hori da AZALAK kudeatzen duen zatia. Arte egoitzen barruan ikastaroak, tailerrak eta masterrak eskaintzen dira, eta edonork parte har dezake.
- Landa ostaturako espazio honetan, ikastaroak, masterrak eta bestelakoak sustatzen dira.

Proiektuaren hastapenetatik ingurua aldatzeko eragileak izan dira. Hori dela eta, Idoia eta Juan sortzaileak Lasierara joan ziren bizitzera. Gaur egun, lau pertsonak lan egiten dute proiektuan, eta horietatik, hiru, kudeaketarekin lotuta daude. Sartzen den langile berria eremura joango da bizitzera, eta beste langileak ingurukoa da.

5.3 Balio bereizgarria

Eremu berezia da Euskadin, eta ostatu hartuta daudenei lan egiteko toki paregabea ematen die, inguru lasaia, eta distraziorik gabekoa. Eremu honetan emandako astebete batek, ohiko lantokian emandakoak baino emaitza hobea lortzen du.

AZALAK eredu jasagarria du: biomasa. Eremuak berotzeko erabiltzen zen elektrizitate sistema aldatu eta beste eredu hau jarri dute. Aldaketa horri Ester, kostuak aurrezte eta ingurumen eragin positiboa lortzea aurreikusten da.

5.4 Erantzuten dien erronkak

Proiektuak eragin positiboa izan du inguruan. Alde batetik, proiektuari esker, Lasierria herria ezagunagoa da. Herriak mugimendua du berriro, eta ahaztuta geratzea edo jenderik gabeko gelditzeko arriskua saihesten da. Inguruko negozioek etekina ere atera diote neurri txiki horri, ostalariei esker. Azkenik, artistek egonaldia amaitutakoan, bere sorkuntzak erakustez gain, jardunaldi/erakustaldi/aurkezpen bat ere egin ohi dute, inguruko edozein



auzokorentzat. Horrez gain, urtean behin, kultura edo arte ekitaldi bat antolatzen dute ingururako, eta jende nahikoa biltzen da normalean.

Hasieratik bultzatzaileen esperientzia profesionala funtsezkoa izan da ingurua eta eremuaren ezaugarriak egokitzeko. Horrez gain, AZALA espazioak artisten beharrak entzuten ditu beti, eta haien neurrirako eremua eskaintzen die.

5.5 Alderdi berritzaileak

Metodo berritzaileen erabilerari dagokionez, bi nabarmentzen dira nagusiki:

- Alde batetik, eremuak ekoetiketa ekologikoa du. Horrek ekartzen du iraunkortasunaren ikuspegitik diseinatuta eta kudeatuta dagoela dena.
- Bestetik, komunikazio lana egiten da, betiere AZALA espazioak bere zerbitzuak erabiltzea erabakitzen duten ostalariekin hasieratik dituen konfidentzialtasun akordioak errespetatuz. Aktiboki lan egiten ari da eguneratuta dauden gizarte sareak eta web-orria sortzeko. Horrela, AZALAK sustatzen dituen jardueren berri ematen da.
- AZALAK garatzen duen proiektu berritzaile bat "Etorkizuneko zirriborroak" delakoa da: Lurrean jakin batean dauden aukeren inbentario batetik abiatuz, gizarte gisa, aurre egiten diogun erronka handietako bati (ekologikoa, ekonomikoa, kulturala, soziala eta abar) erantzunez, etorkizunean aukera bat ematen duen alegia bat pentsatzera eskatzen zaio idazle bati. Helburua, testuinguru batean finkatuta dauden benetako ekimenak igortzeko kanalak aktibatzea da, bere inguruan fikzioak eta iruditeriak sortuz. "Etorkizunaren zirriborroak" azken batean, espekulaziozko narrazioak dira, eta aukera horiek zabaltzea lortuko balitz, gutxi gorabehera urrun dagoen etorkizun batean zer gertatuko litzatekeen jakin dezakegu.

5.6 Eskalagarritasuna

Lankidetzak lerroak bilatzen ari dira Kuartangoko Udalarekin, antzinako bainuetxean antzoki bat sortu duena. Batzuetan lankidetzak egin dira Añanako Gatz Haranarekin, arte zerbitzuak eskaintzeko, eta baita Santa Katalina lorategi botanikoarekin ere.

5.7 Finantzaketa

Proiektuaren finantzazioari dagokionez, eremua eta bere dinamizazioa bereizi behar dira. Espazioa eraikitzeko, erabilitako funtsen % 80a espazioarenak berarenak dira, eta % 20 gutxi gorabehera Eusko Jaurlaritzaren laguntzak. Sustatzaileak beti daude espazioa egokitzen eta instalazioak hobetzen. Egoitza artistikoaren dinamizazioa bi programen bidez finantzatzen da: alde batetik,



Eusko Jaurlaritzarena, kultura sustatzeko ematen dituen laguntzen bidez, Sorkuntza Fabrikak, eta bestetik, Kultura eta Kirola Ministerioarena, INAEM laguntzen bidez.

5.8 Erakunde laguntzaileak

Lankidetzak publiko eta pribatu aktiboa dago. Eusko Jaurlaritzaren eta udalen arteko lankidetzak onak dira, hala ere, Arabako Foru Aldundiaren hurbiltasun handiagoaren falta sumatzen dute.

Espazioa eraikitzen lagundu duten inguruko auzokoen partaidetza aktiboa, proiekturako materiala eta makinak hornituz, edo aktiboki parte hartuz. Espazioan dauden maizterretako batzuek uste dute inguruko hirugarren adineko pertsonekin hartu emanean ibiltzea lagungarria izan daitekeela beren arte proiektu batzuetan.

Orain arte egindako lanaren ondorioz, liburutegi bat eraiki da, agiriak gordetzeko eta ezagutza artistikoko eremu bat sortzeko. Proiektu horrek Eusko Jaurlaritzaren laguntzak jasotzen ditu, eta gaur egun, ideia eta gaitasun berriak sortzen jarraitzen dira. Horrela, etorkizunean abian jartzeko itzaropena dute.

5.9 Emaitzak/eraginak

Azalak guztira 600 pertsona inguru izan ditu ostatu hartuta, eta 2018. urtean 25 egoitza artistikoetan (proiektuak) lagundu zuen. Bestalde, 2019an beste 22 egoitzari lagundu zieten, eta gutxira behera 150 artistak parte hartu dute. Egindako proiektuen artean, bost programazio oinarri nagusi bereizten dira:

- Egoitza eta ikerketa programa: egoitza programaren jardueren zerrenda.
- Jarduera sare pedagogikoen programa, ikerketa sarea - lankidetzak pedagogiak eta proiektuak.
- Finkatze, arte, erkidego eta lurralde programa, AZALERAK gisa ezaguna dena.
- Bitartekaritza eta herritarren partaidetza programak.
- UZTA BATEAN / LA COSA HECHA argitalpen programa.

Ekimenekin lankidetzan aritu diren artisten artean daude Rafael Martinez del Pozo, Usue Arrieta edo Andreas Wutz.

<



6. HESI BIRTUALAK

Sailkapena:	Jasangarritasuna
Harremanetan jartzeko pertsona:	Cristina Quintana Uriarte
Kargua:	IZKI landa garapeneko elkarteko kudeatzailea
Web orria:	https://www.montanaalavesa.com/index.php?PH_PSESSID=c6db1ug04muf30ehb3l7lka5v0

6.1 Ekimenaren deskribapen orokorra

Proiektu honetan, gaur egun, abereek erabili ezin dituzten eremu estentsiboetan artzaintza hobetzea da helburua, izan ere, inguruan hesituta daude. Zehazki, hesi birtualek larre eremu bat mugatzen dute, eta abereak kontrolatuta egoten dira, abeltzaina urrutitik begiraturaz, hesi fisiko edo elektrikorik behar izan gabe. Horrenbestez, hesi birtuala da, abereen geolokalizazioaren bidez. Hesi fisiko edo elektrikoaren aurrean beste aukera bat gisa proposatzen da.

Proiektu honek sektorearen lehiakortasuna eta jasagarritasuna hobetzea du helburu, zenbait baliabide naturalen (larreak, uztondoak, onura publikoko mendiak...) artzaintza hobetuz eremu estentsiboetan. Horrela, animalien elikadura bertako baliabide naturalez osatuta dago, lurrarekin lotutako abeltzaintza ustiatzearen jasagarritasuna handiagoa da, elikadura kostuak aurrezten dira, landa ingurunea modu aktiboan kudeatzen da, artzaintza eremuen sastrakak kontrolatuz. Horri esker, sute arriskuak murrizten dira, eta abeltzaintza erabilera hobetzen da, eskualdeko landare erkidegoetako artzaintza egutegiaren bidez.

Eximen hau Arabako Mendialdeko eskualdea osatzen duten 6 udalerritan garatzen da (Urizarra, Lagran, Bernedo, Kanpezu, Harana eta Arraia-Maeztu).

Nork sustatzen du proiektua?

ARD IZKI erakundea buru den talde eragilea da. Erakunde koordinatzailea da, eta bazkide gisa honako hauek parte hartzen dute: NEIKER teknologia zentroa, Izkiko Batzorde Tradizionalak (Izkiko antzinako Partzuergoko mendien erabilera, jabaria eta gozamina kudeatzen duen organoa), eta Mendialdeko bi abeltzaintza ustiatze (Mendiola-Gauna ETC eta Raúl Rituerto).

Nola parte hartzen dute herritarrek?



Izkiko Batzorde Tradizionaletako abeltzainek parte hartzen dute, eta baita Arraia-Maeztuko bi abeltzaintza ustiategik.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

ADR IZKI erakundeak batzar orokorren bidez eman die informazioa bere erakunde bazkideei. Batzorde horietan, gai hori gai zerrendan sartu dute, eta baita dagozkien zuzendaritza batzordeetan ere. ADR IZKI erakundeko zuzendaritza batzordearen eraketan Mendialdeko eskualdea osatzen duten 6 udalerritako (Urizaharra, Lagran, Bernedo, Kanpezu, Harana eta Arraia-Maeztu) ordezkariak parte hartzen dutenez, lehen mailako, kultura eta zerbitzuetako sektoreetako gain, proiektu honen garapenari buruzko informazioa guztiz publikoa dela eta edonork eskura dezakeela suposatzen da.

Bestalde, zenbait informazio ekintza egin dira. Lehenengo, Santikurutze Kanpezun 2019ko azaroaren 10ean egindako San Martin lehen azokan. Hor, proiektuan esku hartutako abeltzainek eta NEIKER enpresako langileek informazio posterrak jarri zituzten, proiektua aurkeztu zuten eta horretan interesa zuen jendeak egindako galderei erantzun zieten. Halaber, proiektu pilotuaren erakunde bazkideek proiektuari buruzko informazioa ere eman diete bai Eusko Jaurlaritzari, bai Arabako Foru Aldundiari.

Bestalde, Arabako Mendialdeko Kuadrillaren webgunean, ADR IZKIren atalaren barruan, horri buruzko informazioa ere ematen du.

Ekimen honetan interesa zuten zenbait pertsonak abeltzain parte hartzaileei eta NEIKER erakundeari zuzenean galdetu diete erabileraren gaiari eta orain arte lortutako emaitzei buruz.

Gako hitzak: Jasangarritasuna, belaunaldi aldaketa, teknologia, enplegu berriak sortzea, abeltzaintza, landa eremuen garapena.

6.2 Aurrekariak

Ekimena hasi zen VAVI (hesi birtualak) proiektu pilotuan parte hartzen duten eskualdeko bi abeltzaintza ustiategiek ADR IZKI erakundean agertutako interesaren ondorioz. Abeltzaintzek larre eremuak aprobetxatu behar zirela ikusi zuten, izan ere, orain arte ez ziren erabiltzen, itxitura perimetral fisikorik ez zegoelako. Lehen mailako sektorearen lehiakortasuna eta jasangarritasuna hobetu behar zenez, eremu estentsiboetako baliabide naturalak (larreak, sastrakak, onura publikoko mendiak...) aprobetxatzeko aukera proposatu zuten. Hainbat alditan harremanetan jarrita, azkenean talde eragile bat sortu zen, eta hor, lehen aipatutako erakunde bazkideek parte hartuko zuten.



6.3 Balio bereizgarria

Proiektu pilotuak helburu bera duten zenbait eragileren ezagutza eta esperientzien trukea sustatzen du. Lan talde desberdin bat sortzeak (teknologia, garapen zientifikoa, landa garapena, esperientzia zuzena nekazaritza eta abeltzaintza ustiattegietan eta bertako erabilerak eta ohiturak) eragileen arteko harremana ziurtatzen du. Horrela, harreman pertsonalak hobetzen dira, orenen interesak partekatuz, nekazaritza eta abeltzaintza ustiategiaren kudeaketaren barruan emakumearen irudia normalizatuz, Mendialdeko balio, erabilera eta ohitura tradizionalen igorpena bideratuz, eta abeltzainen eta nekazarien lanaren garrantzia nabarmenduz, eremu natural eta hirigune txikien mantentzean laguntzen dutelako, eta bereziki kalitate oneko eta balio erantsi handiko elikadura eskuratzen.

VAVI proiektu pilotuak hesi birtualeko teknologia duten lepokoak erabiltzen ditu, eta aplikazio informatiko bat kudeatzeko. Aplikazio horren barruan, bai ordenagailuan, bai telefono mugikorrean, abeltzainak berak "itxitura birtualeko" eremu bat mugatzen du, bere animaliek bazkatuko duten eremu batean, eta aplikaziotik kudea dezaketena, bai animalien mugimendua, bai erabiliko dituen "itxitura birtualak", abeltzaintza txabolaren elikagai beharren eta haren elikagai eremuaren egoeraren arabera.

Animalia bakoitzak lepoko bat du, eta hor duen gailu bati esker, zehazki non dauden jakin daiteke. Horrez gain, abereek normalean bazkatzen duten eremua muga daiteke (itxitura birtuala). Animalia eremu horretatik ateratzen bada, abisu soinuaren bat jasotzen du, eta ateratzen jarraitzen badu, zentzumen abisu bat. Mugatuta dagoen eremura itzultzea ez da gogaikarria animalia horrentzat.

6.4 Erantzuten dien erronkak

Proiektu honek funtsezko hiru oinarri erantzuten die: ingurumena, ekonomia eta gizartea.

- Gizarte arloari dagokionez: abeltzainen bizi kalitatea hobetzen du, animaliak beti kontrolatuta izan ditzakeelako, artzainaren irudi fisikoa behar izan gabe. Horrez gain, ez du aldizka bere txabolara joan behar. Bestalde, artzaintza naturalean oinarritutako animalien elikadurak kontsumitzaileak gero eta gehiago nabarmendutako alderdiak sortzeko aukera ematen du, 0 km-an oinarrituz, OGMrik gabe. Bestalde, nekazaritza eta abeltzaintza ustiattegietan belaunaldi aldaketa ahalbidetzen du, abeltzainaren bizi kalitatea hobetzen duelako, izan ere, libreki kudeatzeko denbora du, eta horrenbestez, kopurua nabarmen murriztu den eremu batean populazioari eusten ere laguntzen du.
- Ingurumen arloari dagokionez: sastrakak murrizten ditu mendi eremuetan, eta horrenbestez, sute arriskua ere txikiagotzen da. Landare



mosaikoak sortzen ditu mendiaren erabilera desberdinetarako (abeltzaintza, aisialdia eta kirola, ehiza...), eta artzaintzaren bidez ongarriketa naturala handitzen du.

- Arlo tekniko eta ekonomikoari dagokionez: Kostuen aurrezki handia ekartzen du abeltzaintza ustiategien kanpoko elikagaiak erostean. Bestalde, artzaintza hobetzen da, animalien behar fisiologikoak doitzen direlako. Epe ertainera, proiektuak sustatzen duenaren bezalako kudeaketa aktiboak abere talde estentsibo horiek lurraldearen kudeatzailetzat har litzake, eta administrazio publikoak sasi garbitze mekanikoetarako eta itxitura fisikoak egiteko zein mantentzeko bideratutako aurrekontu sailak aurreztuko lituzke.

VAVI proiektu pilotua Arabako Mendialdean egin zen, Euskadiko landa eskualderik handienean beraz, despopulatze arazo larriak eta lehen sektorean belaunaldi aldaketa dituen tokian.

Bi abeltzaintza ustiategi txikik parte hartu zuten proiektu honetan, bi proiektu piloturekin, hala ere, nabarmentzekoa da eskualdeko lehen sektoreko gainerako profesionalek agertutako interesa eta izandako ondorioa, bai haren garapenean, bai sortzen ari diren emaitzetan.

VAVI proiektu pilotuaren talde sustatzailearen xedea zen bi proiektu pilotu horiek eskualdeko abeltzaintza ustiategietan izan litzaketen eragina erakustea.

6.5 Alderdi berritzaileak

Berrikuntza funtsezkoa da, etorkizunean nekazaritza eta abeltzaintza jasangarria lortzeko; baita lan kontzeptu hobea ere, gure nekazaritza eta abeltzaintza ustiategien belaunaldi aldaketa bermatu eta gure landaguneetan biztanle gazteak finkatzea ziurtatzen dutenak. Garrantzitsua da teknologia eta lehen sektoreko jardueraren erabilera tradizionalak lotzea.

Proiektu pilotu hau berritzailea da hesi birtualen teknologia erabili delako artzaintza kudeatzeko animalien elikadura sistemaren barruan. Horrek hobekuntza ekarri du abeltzaintza ustiategien autosufizientzian, abere hazkuntzan kanpoko elikagaien mendekotasuna murrizten delako. Horrez gain, ekonomia zirkularra eta bertako produktua sustatzen dira, animalien bertako elikagaiekin hazitako haragiaren kalitatea nabarmentzen delako.

6.5 Eskalagarritasuna

Proiektua garatzeko, lehendabizi, eskualdeko abeltzaintza ustiategien beharrak eta Arabako Mendialdeko ezaugarri orografikoak kontuan hartu dira. Aldagai horietan oinarrituz, beste eremu batzuetan dagoeneko ezarritako proposamen



teknikoak aztertu dira; baita merkatuan erabilgarri dauden baliabide teknikoek eskaintzan ere.

Lehen fase batea harremanetan jarri ziren Estatuko ingeniariak enpresa batekin, eta proiektu pilotua egiteko zer teknologia eredu behar zen adierazi zioten. Denboraldi luzea igarota, ezezko erantzuna eman zuten garapenari dagokionez. Geroago, behar genuen teknologia egoera aurreratuago batean zuten nazioarteko enpresekin jarri ziren harremanetan. Enpresa batek abere xeheetan eta bere orografian erabiltzen zituzten gailu teknologikoen diseinu bat zuen. Gure proiektuaren beharretarako, gailu horiek abere larrietan (zaldiak eta behiak) egiaztatu behar ziren, orografia irregular batean.

Idea hasiera batean garatuta, antzeko taldeekin harremanetan jarri ziren Aragoi eta Katalunian, hala ere, gure proiektua fase aurreratuago batean zegoen.

VAVI proiektuaren antzeko beste saiakuntza batzuk aztertu dira, hala ere, horren ezaugarrietako bat da bazkatuko ziren azalaren itxitura perimetral fisikoak kenduko zirela, abeltzainak berak ezarritako itxitura birtualen bidez bakarrik mugatuz.

Proiektu pilotu honek zenbait estrategiatan parte hartzen du. Alde batetik, Zientzia eta Teknologiako Euskal Plana zabaltzeko proposamenen garapenean, I+G+Bren gardentasun handiagoa bermatuz. Bestetik, nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzearen produktibitatea modu jasangarri batean handitzen da, abeltzaintza ekologikoaren modua hobetuz, bertako baliabide naturalak ahalik eta gehien aprobetxatuz.

6.7 Finantzaketa

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak % 80an finantzatu zuen, Kalitate eta Elikagai Industrien Zuzendaritzaren bidez, Lankidetzarako laguntza programaren bidez. Gainerako % 20a, bazkide bakoitzaren funtsez bidez garatu zen: (ADR IZKI, NEIKER (Teknologia Zentroa), Izkiko Batzorde Tradizionalak, Raúl Rituerto (nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzea) eta Mendiola-Gauna ETC (nekazaritza eta abeltzaintza ustiatzea). Proiektuaren aurrekontu osoa 87.420,74 € zen.

6.8 Erakunde laguntzaileak

Proiektuaren talde eragileko kideak eurak, gailuen teknologiaren garapenean zein gailuen frogetan parte har dezaketen eragileekin elkartu eta harremanetan jarri dira hainbat alditan.



Lehen estadio batean aplikatzeko teknologia Estatuko enpresekin garatzen saiatu ziren, baina emaitzak ez ziren onak izan. Horren ondorioz, atzerriko merkataritza harremanak ezarri behar izan dira.

Bestalde, taldeen landa eta egiaztatze lanak abeltzainek eurek egiten dituzte, NEIKER enpresaren laguntzarekin.

Proiektuaren kudeaketan lankidetzak publiko eta pribatua dago:

- Alde batetik, ADR IZKI, Arabako Mendialdeko landa garapenerako elkarte gisa, Mendialdeko garapen integralaren alde egiten duena. Tokiko eta udalako administrazio publikoaren esparru guztietako 107 erakunde bazkidek osatzen dute, lehen, bigarren eta hirugarren mailako eskualdeko sektoreak barne. Halaber, Arabako ADRen federazioan (Arabalanda) eta Euskadiko tokiko ekintza taldean (MENDINET) parte hartzen du.
- NEIKER-Tecnalia sozietate publiko gisa, I+G+B proiektuak gauzatuz, abeltzaintza jardueraren lehiakortasuna, produktibitatea eta eraginkortasuna hobetzeko.
- RAÚL RITUERTO, Arraia-Maetzuko nekazari eta abeltzain gisa.
- MENDIOLA – GAUNA ETC, Arraia-Maetzuko udalerriko nekazaritza eta abeltzaintza ustiategi gisa, non kideak emakume bat eta gizon bat diren.
- IZKIKO BATZORDE TRADIZIONALAK, 450 ardi, 100 zaldi eta 500 ardi inguruko abeltzaintza ustiategi estentsibo kudeatzen dituzten 12 pertsonaz osatuta dagoen elkarte gisa.

Nabarmentzekoa da bi abeltzaintza ustiategietatik, proiektuak emakume baten partaidetza aktiboa duela (ETC MENDIOLA-GAUNAko kidea), lan taldearen parte-hartzaile gisa. Bere bikotekidearekin ustiategiaren titularra da, eta proiektuaren garapenean zehar, kudeaketa lan handia egin du proiektu pilotuak arrakasta izan dezan. Gainera, ADR IZKI eta NEIKER erakundearen zuzeneko parte-hartzaileak emakumeak ere badira.

Garrantzitsua da gaineratzea VAVI proiektu proiektuaren lan taldearen barruan emakume eta gizon kopurua berdina dela.

6.9 Emaitzak/eraginak

VAVI hesi birtualen proiektu pilotua bi arlo jakinetan frogatzen ari da Mendialdeko eskualdean, Arraia-Maetzuko udalerraren barruan.

Ekipamenduak dagoeneko lau hiletan probatu dira, eta emaitzak oso onak dira abereen kontrolari eta birtualki mugatutako larreen aprobetxamenduari dagokienez. Hala ere, zenbait gai geratzen dira, hala nola abereek eramaten dituzten lepokoetan dauden baterien errendimendu egokia, kontsultak aplikatzean eta abar.



Berehalako eragina da gure eremuko lehen sektorean lan egiten duten pertsonen lurraldearen kudeaketa aktiboan agertzen duten interesa.

Proiektu honek arrakasta badu, eragin handia izan dezake Mendialdeko eskualdean. Alde batetik, abeltzaintza ustiategien kudeaketa hobetuko da (abereen elikadura kostuak txikiagotuko dira, artzainaren irudia ordezkatzuz abereak mugitzeko, teknologia berriak erabiliz lehen sektorearekin lotuta dauden lan tradizioaletan eta abar). Halaber, nekazaritza eta abeltzaintza ustiategien belaunaldi aldaketa sustatzea ekar dezake, denbora libre gehiago izango dutelako bere kudeaketa pertsonalerako, abeltzainaren etengabeko kontrola eta lanarekiko mendekotasuna saihestuz. Horrek, gazteak Mendialdeko eskualdean kokatzea ekarriko du, ekonomia jardueraren garapenez gain.

Naturaguneen kudeaketa hobetuko da, mendien sastrakak txikiagotuz. Horrek, sute arriskuak ere murriztuko ditu, eta sasi garbitze kostuek nabarmen egingo dute behera.

Mendi publiko edo lurzati pribatuetatik itxitura fisikoak kentzeak naturagune jasangarrien irudia hobetuko du eta itxituren eta mantentze lanen kostuak nabarmen murriztuko dira.

Proiektu honen helburuetako bat da eskualde hutsaren irudia hedatzen laguntzea, haren ekonomia jarduera hobetzea, ekiteko aukera berriekin, proiektu honen probaren bidez, naturaguneak beste modu batera kudeatzea, eta batik bat landatarra den eskualde honen nekazaritza eta abeltzaintza jarduera hobetzea.



7. HIRIKO FRUTA ARBOLAK

Sailkapena:	Jasangarritasuna
Harremanetan jartzeko pertsona:	Pedro Ferrero Diez
Kargua:	Ekimenaren sustatzailea.
Web orria:	http://www.kiribilorepermakultura.com/comunid-ad-de-frutales-urbanos-de-vitoria-gasteiz/ http://www.kiribilorepermakultura.com/anade-tu-arbol/

7.1 Ekimenaren deskribapena

Kiribilore Elkarteak Gasteizen dauden fruta arbolen kokapenak eta ezaugarriak azaltzeko lan egin du.

Horrela, proiektu honen xedea da mapaketa eta zerrenda bat sortu nahi duten pertsonen sare bat sortzea da. Zerrenda horretan, hiriko fruta arbola bakoitzaren helbidea eta espeziea jasoko dira.

Nork sustatzen du proiektua?

- Kiribilore elkarteak eta ingurugiro gaietarako ikastegiak (CEA).

Nola parte hartzen dute herritarrek?

Proiektu parte hartzailea da, beraz, edozein herritarrak aurretik adierazitako zuhaitz baten informazioa eta kokapena gehi dezake web plataformaren, WhatsApp edo mezu elektronikoen bidez.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

Ekimenean edonork parte har dezake, eta informazioa, sortutako online plataforman ikus daiteke. Edonork bidal dezake fruta arbolen eta zuhaixken informazioa.

Gako hitzak: Jasangarritasuna, fruta arbolak, herritarren partaidetza eta prestakuntza.



7.2 Aurrekariak

Kiribilore Elkarteak fruta arbolen basoei buruzko informazioa bilatzeko, beste toki batzuetan (Londresen, Argentinan, Txilen eta Deban) arlo horretan egindako jardueri buruzko ikerketa hasi zuen. 2017. urtean, aldez aurretik landu bazuen ere, *Gasteiz hiriko fruta arbolak* izeneko proiektua abian jarri zuten.

Proiektuaren hasieran, arbolak geolokalizatzea eta online plataforma batean jartzea zen helburua. Informazio hori edonork ikus zezakeen. Plataformaz gain, 2017. urtean zenbait jarduera abian jarri ziren.

- Hasierako mapaketa : Judimendi, Salburua eta Arriagako parkea.
- Hiru tailer, hiriko fruta arbolak ezagutzen ikasteko eta mapan sartzeko.
- Bideo forum bat "El Huerto Permacultural" izeneko film dokumentalarekin.
- Fruta uzta eta zukua egitea.
- Herritarrek fruta arbolak landatzea.

Proiektuak gutxi gorabehera urtebete du, baina gaur egun, web plataforman datuak sartzen jarraitzen da. Horretarako, WhatsApp talde bat sortu zen aurretik mapaketan parte hartu zuten pertsonekin, eta taldeak arbolei, zuhaixkei eta kokapenari buruzko informazioa ematen jarraitzen du. Bigarren fase batean, senda arbolak eta beste erabilera batzuk dituztenak identifikatzea proposatu da, hala nola ezkiaren, amodio zuhaitzaren edo indigaztainondoaren kasuan, sendatzeko ezaugarriak dituztenak, jateko hostoak edo tresnak sortzekoak. Baina bigarren fase hori oraindik ez da abian jarri.

7.3 Balio bereizgarria

Proiektu honek eragin positiboa du hirian eta herritarren balioetan. Partaidetza maila handiko proiektua da, bere garaian aitzindaria izan zen web plataforma batekin. Halaber, ezagutza biologikoak igorri eta eskatu dira. Horrez gain, proiektu honi esker pentsamoldea aldatu da udaleko teknikariengan, eta arbola eta zuhaixka mota hauek landatzeak duen eragin positiboaz jabetu dira. Aldaketa horren ondorioz, Udalak fruta arbolak landatu ditu berriz.

Bestalde, proiektuak herritarrei balio batzuk eta ezagutza igortzea lortu du, praktikaren bidez, eta proiektuan aktiboki parte hartzera behartuz.

Proiektuak jasangarritasuna atxikita dauka berez, bere helburu nagusia herritarrengan eragin positiboa sortzea baita, elikaduran balioak irakatsiz, dietak egunerokotasunean duen garrantzia nabarmenduz, frutari garrantzi handia emanez, hirian landatutako produktuen alde eginez, KM0 produktuari funtsezko garrantzia emanez, eta fruta arbolen eta zuhaixken zikloak eta sasoiak errespetatuz.



Ekimenak xede publikoa aktiboki barne hartzen du, baina erabiltzailearekin hartu eman handiagoa falta da. Esaterako, ez dira kontuan hartu erabiltzaile edo parte-hartzaileen prestakuntza beharrak edo kezak. Prestakuntza eskaintza itxia da, eta Gasteizko Udalarekin jadanik adostutako programen barruan ezarrita dago. Bestalde, ez da baloraziorik egin herritarrekin.

7.4 Erantzuten dien erronkak

Erabiltzaileek berariazko edo espezializazio handiagoko prestakuntzen inguruan dituzten kezka edo beharrei erantzuteko helburuarekin, Kiribilorek harremanetan jarri ditu herritarrek eta beste eragile batzuk. Esaterako, Arkauteko eskola edo HAZI (Landa, Itsasertz eta Elikagaien Sustapena).

7.5 Alderdi berritzaileak

Open source teknologiak erabili dira. Plataforma Gasteizko irabazi asmorik gabeko elkarte batek garatu zuen: Saregunek. Bestalde, Humanos Unidos enpresak web plataforma diseinatu du. Praktikarekin edo herritarren partaidetza aktiboarekin lotutako prestakuntza, proiektuan parte hartuz.

7.6 Eskalagarritasuna

Antzeko proiektuak daude beste hiri batzuetan, eta zenbait udalerrik interesa agertu dute ekimenean. Horrez gain, partaidetza maila handiko proiektua da, eta horri esker, Gasteizko Udalak hainbat fruta arbola landatu ditu hirian.

7.7 Finantzaketa

Ingurugiro gaietarako ikastegiak (CEA) finantzatutako proiektua da.



7.8 Erakunde laguntzaileak

Gasteizko Udala, Arkauteko estola edo HAZI (Landa, Itsasertz eta Elikagaien Sustapena), Gasteizko irabazi asmorik gabeko Saregune elkarte, Humanos Unidos eta Judimendi Gizarte Etxea.

7.9 Emaitzak/eraginak

Guztira 8 jarduera egin dira, eta 75 fruta arbola eta zuhaixka baino gehiago geolokalizatu dira. Jarduera horietan 175 pertsona inguruk parte hartu du, 65 fruta baino gehiago bildu dira, 100 l inguruko sagar zuku egin da, eta bi kilo oliba inguru dastatu dira.

Hiriko fruta arbolen mapaketa egiteko 4 tailer egin dira, eta adin guztietako 75 pertsonak parte hartu dute. Hala ere, gehienak, helduak izan dira.

Zuku naturaleko tailerrera 100 pertsona baino gehiago hurbildu ziren goiz osoan, eta sagar zukua nola egiten den ikusi zuten.



8. IKUSEZINA DENA BISTARATZEA

Sailkapena:	Gizarteratzea
Harremanetan jartzeko pertsona:	Luis Antonio Preciado Sáez de Ocáriz
Kargua:	Gasteizko Hegoaldeko eta Ekialdeko eremuko gotzain bikarioa
Web orria:	https://diocesisvitoria.org/

8.1 Ekimenaren deskribapena

Sortzen ari den ekimena da, eta Gasteizko elizbarrutia etxeko langileen taldeari laguntzen ari zaio, langileen elkarte bat sor dezan. Hor, emakume migratzaileen arazoa aztertu eta kudeatuko da, etxearekin zerikusia duten lanak bakarrik aurkitzen dituztelako. Elizbarrutiaren ikuspegitik, etxearekin lotutako lanak dituzten emakume migratzaileen eskubideak urratzen dira. Haietako batzuek bereizkeriazko egoerak eta egoera iraingarriak salatzen dituzte. Jarduera honen bidez, arazo horren berri ematea eta beren lan baldintzak hobetzen dituen enplegu duin bat eskatzea da helburua.

Sektore honetan:

- Gehienak emakumeak dira, migratzaileak eta lanbide prestakuntza gutxikoak.
- Askotan ez dira aipatzen, ez da onartzen lan horren sortzen duen balioa, ez eta duen garrantzia ere.
- Oso isolatuta dago, aisialdi gutxi duelako, jardunaldiak oso luzeak baitira.
- Diskriminazioak naturalizat hartzen dira, ezjakintasunarengatik edo ohikoa delako.
- Lan harremanetan jazartzeko joera, etxeko esparru pribatuan lan egiten delako.

Zainketa zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresei ezin dietenez ordaindu, familiek eskatutako jardueren zorrotasuna handiagoa da.

Nork sustatzen du proiektua?

Gasteizko Elizbarrutiak.



Nola parte hartzen dute herritarrek?

Langilea bada, lan saioretara joanez. Bestalde, herritarrek parroketan zein proiektuaren garapenean parte hartzen duten erakundeetan eskura dezakete informazioa.

Eremua publikoa da eta edonor sar daiteke?

Etxeko emakume eta gizon langabeei berezi zuzentzen zaie, edo zainketa lanetan aritzen direnei. Informazioa edozein herritarrek eskura dezake.

Gako hitzak: Gizarteratzea, lan baldintza duinak, etxeko langileak, genero berdintasuna.

8.2 Aurrekariak

Ekimen hau "Lan duinaren aldeko eliza" programaren ondorioz hasi zen. Gasteizko elizbarrutiak, 2018-2019 aldian bereziki, Elizbarrutiko Ebanjelizatze Planaren laugarren ildo bultzatzearen alde egin du. Ildo horretan, eliza samariar gisa duen gizarte konpromisoa aipatzen da. Bultzatzeko sortutako lau komisioren artean "Lan duinaren aldeko elizarena" dago. Gaur egungo helburua etxeko langileengana hurbiltzea da. "Ikusezina dena bistaratzea" izenburuaren bidez, ekimeneko parte hartzaileen helburua da enplegu emaileei etxeko langileen baldintza prekarioen berri ematea.

Langile horietako batzuekin lotura bat zegoen, eta zenbait bilera egiten hasi dira, ideia bat igortzeko. Elkarte bat sortzea. Bi topaketa orokor egin dira. Sortzez Garbiaren Ahizpak (Etxeko Zerbitzuaren Ahizpak) eta Caritas dira langileekiko harremana sustatzen dutenak. Hemen funtsezkoa pertsonak ezagutzea ahaldundu ahal izateko eta dituzten beharrei erantzuteko. Lehen topaketa orokorrean hiru puntu nagusiki landu ziren:

1. Elkarte baten beharra igorri. Horretarako "Torre de Babel" izeneko Bilboko elkarte baten esperientzia aurkeztu zuten. Helburu nagusia da etxeko langileen laguntzea, profesionalizatzeko, ahalduntzeko eta laguntza emateko. Ekintza honen xedea da errealitate bat ezagutzera ematea, hori egiteko aukera dagoela adieraziz.



2. Elkartea sortzeko aukera proposatzea. Esku hartutako eragileek laguntza eman zieten, eta interesa zuten pertsonekin elkarrizketa parte hartzaileak sustatu ziren. Batzorde bat sortu zen babesteko. Interesa agertutako pertsonak migratzaileak, ez migratzaileak, emakumeak eta gizonak ziren. Hortik aurrera estatutuen zirriborro bat prestatzen hasi ziren.
3. Batzorde horrek aktiboki lan egin du estatutuen zirriborroa prestatzeko.

ATIA (Arabako Etxeko Langileen Elkartea) da biltzar parte hartzailean etorkizuneko elkarterako aukeratu zuten izena.

Beste deialdi orokor bat egin zen, eta estatutuen zirriborro bat aurkeztu zitzaien. Deialdi berri honek hiru helburu zituen:

- 1) Zirriborroa onartzea.
- 2) Aurretik izen ematea egitea elkartean sartu nahi ziren pertsonekin.
- 3) Pertsonak proposatzea elkartearen kudeaketa talde bat sortzeko.

Gaur egun, kudeaketa taldea dagoeneko eratuta dago, eta 2020ko urtarrietik aurrera Elkartea sortzeko asmoa dago.

8.3 Balio bereizgarria

Ekimena sustatzen duen taldeak, eragindako pertsoneri laguntzen die, ahaldunduz, laguntza eta aholkuak emanaz, betiere aurre egiten ari zaion erronkan laguntzeko helburuarekin. Horrela, bazkideak babestuta sentitzen dira.

Baina ekimen honen balio bereizgarria da enplegu emaileekin egiten ari den kontzientziazio lana. Mota honetako zerbitzuen kontratatzaileek lehenengoak izan behar dute jabetzen langileei baldintza duinak eskaini behar dizkietela. Lan hori egiteko, auzoko parroketan gai hori landu zen, zenbait jarduera egin eta informazio panfletoak banatu ziren parroketan. Ekintza horien ondorioz, zenbait enplegu emaile Caritas-era hurbildu dira, erronka hori nola kudeatzen ari den jakiteko.

Proiektuak gizarte harremanak hobetzen ditu, langileen artean loturak sortu direlako. Esperientziak partekatzen dira eta hori guztia, berez.

8.4 Erantzuten dien erronkak

Hauexek dira elkartearen helburuak:

- Kultura sustatzea.



- Prestatzea, emakumezko langileek gero eta prestakuntza handiagoa behar dutelako. Parte hartutako eragileak harremanetan jartzen dira Egibide-rekin, eta prestakuntzak kudeatzen dira.
- Topatzea.

8.5 Alderdi berritzaileak

Lotura zegoen langileekin zenbait bilera egiten hasi ziren, ideia bat igortzeko: elkarte bat sortzea. Bi topaketa orokor egin dira. Etxeko zerbitzuaren ahizpaka eta Caritas dira langileekin hartutako harremana sustatzen dutenak. Hemen funtsezkoa pertsonak ezagutzea ahal izateko eta dituzten beharrei erantzuteko. Lehen topaketa orokorrean hiru puntu nagusiki landu ziren:

- 1) Elkarte baten beharra igorri. Horretarako, Bilboko Torre de Babel elkartearen kasua aurkeztu zuten. Haren helburua da etxeko langileei laguntzea, profesionalizatu daitezen, ahaldunduz eta lagunduz. Ekintza honen xedea da errealitate bat ezagutzera ematea, hori egiteko aukera dagoela adieraziz.
- 2) Elkartea sortzeko aukera proposatzea. Esku hartutako eragileek laguntza eman zieten, eta interesa zuten pertsonekin elkarriketa parte hartzaileak sustatu ziren. Batzorde bat sortu zen babesteko. Interesa agertutako pertsonak migratzaileak, ez migratzaileak, emakumeak eta gizonak ziren. Hortik aurrera estatutuen zirriborro bat prestatzen hasi ziren.
- 3) Batzorde horrek aktiboki lan egin du estatutuen zirriborroa prestatzeko.

8.6 Eskalagarritasuna

Beste jarduera batzuk ere egin zituzten beste herri batzuetan, eta eskalagarritasun aukera ere badagoela hautematen da. Helburua da bazkide kopurua handitzea.

Halaber, mugimendu feministarekin lan egiten ari da, emakumeek sektorean duten eskubidearen arabera. Horretarako, komunikazioak partekatu dira bi norabideetan, topaketak ez errepikatzeko koordinatu dira, eta etengabe daude komunikatzen bi alderdiak. Bestalde, Migratzaileentzako Jesuiten Zerbitzuak egindako lanarekin komunikazio guztiak adierazi ziren; esaterako, enplegu emaile izan daitezkeenei banatutako informazio diptikoak.

8.7 Finantzaketa

Proiektua Gasteizko gotzaindegiko elizbarrutiko taldeek finantzatu dute, baina orain arte proiektuak ez du ekarri inolako inbertsio nabarmenik. Elizbarrutiko taldeak laguntza ematen du lokalari dagokionez, aholkularitza, eta interesa duen taldearen topalekuak sortzen ditu.



8.8 Erakunde laguntzaileak

- Elizbarrutiko idazkaritza soziala.
- Caritas Gasteizko Elizbarrutia.
- CONFER (Espainiako Erlijiosoen Konferentzia).
- Elizbarrutiko Migrazioen Ordezkaritza.
- Sortzez Garbiaren Ahizpak (Etxeko Zerbitzuaren Ahizpak).
- Ekintza Katoliko Orokorra.
- HOAC (Ekintza Katolikoko Langile Ermandadea).

Oraingoz ez dago lankidetzeta publiko pribaturik. Ekimen pribatua da, elizak bultzatutakoa.

8.9 Emaitzak/eraginak

- 35ek izena eman dute aldez aurretik Elkartean: 32 emakumek eta 3 gizonek.
- Azaroaren amaieran talde eragilea sortu zen; 6 pertsona ziren talde honetan.



9. GILTZA ETXEBIZITZETARAKO BITARTEKARITZA

Sailkapena:	Gizarteratzea		
Harremanetan pertsona:	jartzeko	Fidel Molina Ortega	
Kargua:	Berakah koordinatzailea	proiektuaren	
Web orria:	http://berakah.es/		

9.1 Ekimenaren deskribapena

Berakah programa Gasteizko Hirigune Historikoko Pastoral Unitatea osatzen duten 4 parrokiei esker sortu zen, eta humanismo kristauari jarraitzen dioten pertsonen osatuta dago. Balio eta ikuspegi bera partekatzen dute.

Berakah boluntarioei eta dohaintzei esker sortu zen programa da. Eskaintzen diren jarduera guztiak behar baten ondorioz sortzen dira beti. Ahultasun kasurik muturrekoena da lo egiteko sabairik ez izatea. Baliabide gutxiko edo baliabiderik gabeko pertsonak dira, eta behar horren ondorioz, "Giltza etxebizitzetarako bitartekaritza" proiektua sortu zen. Baliabide gutxi dituzten pertsonak ahalduz da helburua, etxebizitza bat bilatzen laguntzeko eta jabeen konfiantza emateko, baliabiderik gutxieneko pertsonen lo egiteko sabai bat izan dezaten.

Horretarako, etxebizitzaren bilaketa "zailean" laguntzen du, bai bilaketa prozesuan, bai etxebizitza okupatzeko prozesuan. Horrez gain, aholkularitza ematen zaie jabeen, eta jarraipen bat etxebizitza alokatzeko prozesu osoan. Arraza, hizkuntzak, aurreiritziak eta bestelakoak direla eta, alokatzeko zailtasuna duten pertsonentzat pentsatuta dago.

Laguntza behar duten pertsona horien harrera, aurretiko ebaluazio bat behar duen talde baten bidez egiten da, eta geroago, Berakah erakundeak eskaintzen dituen programa desberdinetara eramaten dira pertsona horiek.

Nork sustatzen du proiektua?

Berakah programak.

Nola parte hartzen dute herritarrek?



Askotan, beharraren eta proiektuaren berri duen sozietateak deribatzen ditu pertsonak. Beste batzuetan, hiriko gizarte langileen zerbitzuek.

Gehienetan, Berakah harrera zerbitzu orokorrak deribatzen du programa horretara.

Horrez gain, Gasteiztik banatutako Berakah gunek ditu, eta hor, boluntarioek zein behartsuak joan daitezke.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

Bai, informazioa Berakah erakundearen web-orrian edo Gasteiz hirian dauden zentroetan ikus daiteke.

Gako hitzak: Ahalduntzea, integrazioa, normalizazioa, erkidegoa, etxebizitza.

9.2 Aurrekariak

Proiektua duela 14 urte martxan jarri zen, 2005-2006 ikasturtean, mikrokredituen proiektuarekin batera. Hamalau urte hauetan, mota guztietako errealitateak aurkitu dituzte, eta beti behar horiei erantzuten saiatu dira. Esaterako, pertsona askok ez zekiten zer zen DSBE, ez eta laguntza honen eskatzaileek zer baldintza bete behar dituzten ere. Horrenbestez, etorkizuneko jabeek jakinarazi zaie laguntza hori jasotzen duen pertsona batek erakutsi eta ordaindu behar duen lehen gauza errentaren faktura dela. Beraz, antza, pertsona horiek ordaintzaile onak dira.

Berakah erakundeak etxebizitza bilatzeko aholkularitza eta laguntza behar duten pertsona guztiak artatzen ditu, ostegunero, arratsaldean.

9.3 Balio bereizgarria

Konfiantza ematen duten itemak lantzen dira, "Berme moral" bat lantzen da. Pertsona horiek nolakoak diren kontatzeak asko laguntzen ditu jabeak. Bestalde, zenbait jabeek, errentaria izatea eskatzen duen pertsonaren historia soziala ezagutzean zati hori baloratzen dute, eta etxea alokatzea errazagoa da, horrek ekartzen duen gizarte ekarpenarekin, gizarteari beste modu batean lagunduz.

Berakah erakundeak ekimen horrekin duen lana amaitzen da laguntza eskatzen duten pertsonen edo familiak etxea aurkitzen dutenean.

Proiektu honen bidez, laguntza eskatzen duten pertsonen aktiboki parte hartzen dute.



- Entzute aktiboa.
- Pertsonengan mugimendu bat sortzeko tresnak eskainiz.
- Aholkularitza, baina laguntza eskatzen duten pertsoneri protagonismoa emanez, eta eurek ekintzak bultzatzera bultzatuz.
- Gida bat landu da Berakah erakundera joan diren pertsonak helarazitako behar jakin batean oinarrituz.
- Errentamendu kontratuak sortzen laguntzen zaie, bai etxebizitzan jabeen, bai errentariei. Gaur egun, pertsona bat arduratzen da kontratu horiek egiteaz.

9.4 Erantzuten dien erronkak

Etxe bat bilatzea aurkitzeko zailtasunak dituzten pertsonentzat, pertsona batentzat ahultasunik handiena etxe bat ez izatea baita.

Berakah erakundeak bi etxebizitza bloke ditu, eta horiek dira hain zuzen ere behartsuentzat erabiltzen direnak. Ingurura zertxobait egokitzean, "Giltza etxebizitzetarako bitartekaritza" programaren bidez, pertsonak etxebizitzaren errentaren merkatuan beste errentari batzuekin lehiatzen hasi aurretik, hiru oinarri garrantzitsuri jarraituz laguntzen zaie:

- Pertsonari entzutea.
- Jabeen informazioa eta aholkuak ematea.
- Pertsona ahalduntzea. Etxebizitza gida bat ematen zaie. Programei, webguneari, higiezinaren etxeen buruzko informazio guztia. Etxea aurkitzeko egiten ari diren prozesua aztertzen da eta aholkatzen zaie.

9.5 Alderdi berritzaileak

Proiektuak gizarte harremanak hobetzen ditu maila guztietan. Sei hileko prozesu baten ondoren, pertsona horiek gai dira lehen errenta bat ordaintzeko. Garrantzitsuena da gizarteratze prozesu azkarrak izatea eta pertsonak beren kabuz moldatzeko gai izatea.

Berakah erakundeak metodo berritzaileak erailtzen lan egiten du, ikuspegi bereizle batekin:

- Irtenbide zehatzak sortzen ditu arazo larrietarako.
- Sareak sortzen ditu jatorriaren arabera, bazterkeriarik egin gabe.
- Ohiz kanpoko metodoak; "normala denak ez du ezertarako balio".



9.6 Eskalagarritasuna

Une honetan ez da baloratzen jarduera eremua Gasteiztik kanpo irekitzea.

Beste erakunde batzuekin harremanetan jarri dira, izan duten esperientzia partekatzeko eta lankidetzan aritzeko:

- Red Íncola fundazioa (Valladolid)
- Atalaya (Burgos)
- Karitateko alabak estatu mailan laneratzeko beste proiektu batzuk.

9.7 Finantzaketa

Berakah programa eta bere proiektu guztiak dohaintzen bidez finantzatzen dira. Programa honek gastu nabarmenik ez badu ere, boluntarioen orduei eta inplikazioari esker mantentzen da.

9.8 Erakunde laguntzaileak

- Vital Fundazioa (Berakahren aurrekontu orokorraren erdia ematen du).
- Udapa S.Coop., Aurrenak SCoop
- La Caixa Fundazioa.
- Partikularren ekarpenak.

9.9 Emaitzak/eragina

- 52 familiari lagundu zaie 2019an.
- 3 boluntario izan dira 2019an.



10. MIKROKREDITUAK

Sailkapena:	Gizarteratzea		
Harremanetan pertsona:	jartzeko	Fidel Molina Ortega	
Kargua:	Berakah koordinatzailea	proiektuaren	
Web orria:	http://berakah.es/		

10.1 Ekimenaren deskribapena

Ekimen honek, diru solidarioa kudeatzen du. Horrela, banka tradizionalan dirua eskuratu ezin dutenei eta une jakin batean bizitza duintzeko finantzazioa behar dutenei dirua mailegatzeko zaie. Mota honetako kredituak jasotzeko, gaitasun ekonomikoa izan behar du dirua epe laburrean itzultzeko. Zenbait ezaugarri bete behar dira, hala nola: banka tradizionalan ezin eskuratzea, ezezkoa idatzita izatea edo arrazoi argia izatea.

2018-2019 urtean 48 mikroreditu eman dira, guztira 45.940 €, beraz, batez besteko mikroreditua 957,03 euro izan da. Emandako 48 mikroredituetatik, 24, etxebizitza alokatzeko izan dira, 8, etxebizitzako zorrari aurre egiteko, 8, premiazko laguntzak, 4, jatorrizko zorra, 2, jatorrizko gaixotasun baterako, eta 2, familia elkartzeko. Bestalde, 19 nazionalitateko pertsonari eman zaie: lehenengo hirurak espainolak dira, 10 lagun guztira, eta horren atzetik, 5 brasildar eta 4 ekuadortar.

Nork sustatzen du proiektua?

Berakah programak. Berakah programa Gasteizko Hirigune Historikoko Pastoral Unitatea osatzen duten 4 parrokiei esker sortu zen, eta humanismo kristauari jarraitzen dioten pertsonen osatuta dago. Balio eta nahi duten munduari buruzko ikuspegi bera partekatzen dute.

Kristau taldea da (nortasun juridikorik gabea). Ondasunak adosten dituzte (boluntarioak, dohaintzak...), eta baztertuen daudenen erreferentzia toki bat dira, denboran zein espazioan.

Nola parte hartzen dute herritarrek?



Arabako gizarte arloko elkarte askok mikrokreditu bat behar izan dezaketen pertsonak deribatzen dituzte.

Berakah programak berak, zerbitzu hori behar duten pertsonak deribatzen ditu bere harrera integraleko taldetik.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

Bai, informazioa Berakah erakundearen web-orrian edo Gasteiz hirian dauden zentroetan ikus daiteke.

Gako hitzak: Diru solidarioa, integrazioa, normalizazioa, erkidegoa, kredituak.

10.2 Aurrekariak

Mikrokredituen proiektua 2007ko urtarrilean abian jarri zuten. Orain arte 621 mailegu eman dira, 612.536 euro guztira, eta horietatik, 278 mailegu osorik amortizatu dira, eta 409.970 euro itzuli dira.

Bankak bermerik ematen ez dion gizarteko zati bat bazegoen eta badago. Normalean oso kopuru txikiak dira, eta zirkulatzaile bat sortu behar da, pertsona horiek estatusunetik atera daitezen. Hori dela eta, diru bat bildu zen (dohaintzen bidez) eta behar zuten pertsonen eskura jarri zen. Hasiara batean zirkulatzailea oso mugatua zen, eta lehenbailehen itzultzea eskatzen zen, beste pertsona batzuek erabiltzeko aukera ere izan zezaten.

Urte hauetan erabilera murriztu den programa da. Horren arrazoia da laneratze prozesua lehen errazagoa zela, ehuneko altu batean emakumea agiriekin etortzen zelako. Gaur egun, laneratze prozesua oso motela da. Programan badakite zenbait kasutan, behar duten pertsonen eskura jartzen den dirua zuzenean dohaintza dela, eta halakotzat hartzen dute. Beste kasu batzuetan, epeak luzatu behar dira, eta pertsonaren beharretara egokitu. Baina Berakah erakundetik badakite, ahal bada, dirua itzuli behar dela eta epeak bete, horrela, pertsona gehiagok jaso dezaketelako laguntza hori.

Prozedura banku baten prozeduraren antzekoa da, hau da, mikrokredituak jasotzen dituzten pertsonak ebaluatzen dira, kontratu bat sinatu eta epe bat eta itzultzeko kopuruak finkatzen dituzte. Hala ere, ez zaie inolako interesik kobratzen. Kontratuei alta ematen zaie Aldundian, eta prozedura araututa eta dokumentatuta geratzen da.



10.3 Balio bereizgarria

Ekimenak entzute aktiboa egiten du beti, eta mikrokreditua eskatzen duen pertsonak dituen beharretara egokitzen da. Tratu hurbila da, eta egoera bakoitzera egokitzen da. Garrantzitsuena konfiantza da, bai eskatzaileak igortzen duena, bai programak eskaintzen duena.

10.4 Erantzuten dien erronkak

Lehen mailako behar baten aurrean likidezia izateak balio erantsia ekartzen du, izan ere, une jakin batean likidezia faltarengatik pertsona horiek ez baztertzeko aukera ona da.

Aurkitzen duten kasuetako bat DSBEren izapidetzeak dira. Pertsona batek DSBE eskatzen duenean, automatikoki, jasotzen ari den udal laguntzak galtzen ditu. Beraz, izapidetze egoera batean egoten dira pertsona horiek, non ia baliabiderik ez dituzten, eta mikrokredituen laguntza behar duten.

10.5 Alderdi berritzaileak

Programa honek gizarte harremanak hobetzen ditu, izan ere, benetan behar duten pertsonak bigarren aukera bat izaten dute. Horrela, bere denboraren eta erronken protagonistak dira. Pertsona batek erronka bat duenean eta ezaugarri horretako laguntza bat jasotzen duenean, oso atsegingarria da.

Konfiantza horren eta ekimenaren gizarte onura igortzearen ondorioz, programa horri etekina atera dioten pertsonak dohaintzak egin dituzte gerora beste pertsona batzuei lagundu ahal izateko.

10.6 Eskalagarritasuna

Bizkaian dagoeneko claretfondoa zegoen, eta Berakah erakundea hurbildu egin zen, eredia sakonago ezagutzeko. Baina ez dakite proiektu horrek jarraitzen duen ala ez.

Berakah erakundeak abian jarri zuen proiektuaren ezaugarriak desberdinak dira, izan ere, baldintzak eta ingurunea desberdinak ere badira. Pertsonak eta erakundeak elkar ezagutzen dute, beraz, konfiantza maila handiagoa da. Gizarte egitura oso txikia da, eta zailagoa da eskatzaileak desagertzea. Une honetan ez da baloratzen jarduera eremua Gasteiztik kanpo irekitzea.

10.7 Finantzaketa



Boluntarioen ekarpenekin egin da potea. Gaur egun, kreditu beharrak asetzeko nahikoa zirkulatzaileria dago.

Badakite berankortasuna zaila dela neurtzea, baina orain arte, emandako mikrokreditu gehienak, epe labur edo luzeagoan, itzuli dira.

10.8 Erakunde laguntzaileak

Hauek dira programaren erakunde laguntzaile nagusiak:

- Vital Fundazioa
- Udapa S. Coop
- Aurrenak S. Coop
- La Caixa Fundazioa.
- Partikularren ekarpenak

Bestalde, oinarrizko mailan, erakundeen laguntza ere badago kaleko gizarte langileen aldetik. Pertsona horiei Berakah programa azaltzen zaie, eta behar duten pertsonen informazioa ematen zaie.

10.9 Emaitzak/eragina

2018-2019 aldian:

- 36 mikrokreditu eman dira.
- 22.818 € mailegatu dira.
- 5 boluntariok lan egin dute arlo honetan.

2017-2019tik:

- 82 mikrokreditu eman dira.
- Helburuak:
 - 41, etxebizitza alokatzeko fidantzarako.
 - 38 larrialdi kasu.
 - Hornidurak, ikasketak, atzerapenak ordaintzeko.
 - 1, familia elkartzeko.
 - 2, jatorrizko gaixotasun baterako.



11. BEGIA

Sailkapena:	Gizarteratzea
Harremanetan pertsona:	jartzeko Patricia Bedoya
Kargua:	Sortzailea
Web orria:	https://BEGia.es/

11.1 Ekimenaren deskribapena

BEGIa aplikazio mugikorra da, eta barneko eremuen irisgarritasun integrala hobetzen du ikusmen urria, orientazio arazoak, arazo kognitiboak eta bestelakoak dituzten pertsonentzat. Hauek dira aplikazioaren ezaugarriak:

- Gida: Interes guneak (aretoak, produktuak, elementuak) bilatzen laguntzen da, eta erabiltzailea haietaraino gidatzen da, jarraibide bisualen eta entzumenezko jarraibideen bidez. Hori guztia barneko eremuetan dagoen kokapen sistemari esker.
- Ikusmen artifiziala: Ikusmen artifizialari Ester, aplikazioak egiazta dezake erabiltzailea tokiraino heldu dela, edo nahi duen produktua hartu duela.
- Errealitate handitua: Errealitate handituari esker, erabiltzailea orienta daiteke eta bilatzen ari den tokia errazago aurki dezake.
- Informazioa: Barneko eremu baten informazio garrantzitsu guztia biltzen da, hala nola elementuan kokapena eta haien ezaugarriak, erabiltzaileentzat guztiz irisgarria eta interaktiboa izan dadin.

Espainiako biztanleen ia % 20k desgaitasun bat du. Horrez gain, biztanleen % 80k onartzen du toki berrietan edo gutxi ezagutzen dituenetan galtzen dela. Bi taldeak elkartzen baditugu, pertsona askok eguneroko lanak egiteko arazoak dituztela ikusiko dugu, hala nola erosketak egiteko, bere lantokitik mugitzeko, medikuaren kontsultara joateko edo erakusketaz gozatzeko, hori guztia orientatzerako orduan edo bilatzen dituzten produktuak eta toki interesgarriak aurkitzeko izaten dituzten zailtasunengatik.

Aplikazio hori edozein tokitan erabil daiteke:

- Supermerkatuetan
- Dendetan
- Merkataritza zentroetan
- Azoketan
- Bulegoetan
- Museoetan
- Hoteletan
- Ekitaldietan
- Ospitaleetan
- Unibertsitateetan



Nork sustatzen du proiektua?

Talde sustatzailea Patricia Bedoyak eta Asier Garciak osatzen dute. Alde batetik, Patricia, barne arkitektoa da; 25 urte ditu. Bestalde, Asier Garcia Morato komunikazio eta marketin kazetaria da, eta 26 urte ditu. Biak gasteiztarrak dira.

Nola parte hartzen dute herritarrek?

Aplikazioaren bidez.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

Proiektuaren informazioa web orrian bertan jaso daiteke. Aplikazioa garapen pribatua izaten ari da. Ez da baztertzeko open source formatu gisa ere irekitzea.

Gako hitzak: Irisgarritasuna, gizarteratzea, teknologia, partaidetza, co-working, ikusmen urriko pertsonak.

11.2 Aurrekariak

Idea 2019ko martxoan sortzen hasi zen, Patricia Bedoyak bere familian zuen kasu batengatik. Ikusmen urriko arazoak zituen bere ilobari eguneroko jarduera bat egiten laguntzean, esaterako supermerkatua joaten, ikusmen urriko pertsonak objektu arrunt bat erosteko zituzten zailtasunez konturatu zen. Horrenbestez, kasua aztertzen hasi zen, merkatuan eskaintzen ziren irtenbideak aztertuz, eta arazo hori zuten pertsonekin esperientziak partekatuz. Orduan, arazo horretarako ez zegoela irtenbide osorik konturatu zen. Eta bere ideia Araba ekinean lehiaketara aurkezteko motibazioaz baliatuz, ideia sortzen hasi zen.

Arazoa sakonago aztertzeko eta ezagutzeko lana eginda, barneetako arazoak, beharrak eta teknologiak ulertuz, ideien lehen hasikina aurkeztu zuten Araba ekinean "zure ideiak balio du" lehiaketara. Idea berritailerik onenaren saria eta METXA saria (proiektuen azeleratzailea) eman zizkioten. Azken sari horren bidez, ideien aholkularitza eta laguntza programa bat eman zioten proiektuaren azeleratzailearen bidez, proiektua sustatzeko helburuarekin. Astebete beranduago, ideiak Ekintzaile laguntza jaso zuen. Handik gutxira Arabako BICek ere interesa agertu zuen proiektuan, eta lan egiteko toki bat emateaz gain, sarea ere eskaini zieten behar zuten guztirako. Horrela pixkanaka itxura hartzen joan zen, eta BEGia proiektu bihurtu zen.

BEGia-n esfortzu handia egiten dute behar duten pertsonen neurrirako tresna bat sortzen. Hori dela eta, lan handia egin dute ikusmen urriko pertsonekin, probatzen joan diren irtenbideei buruzko iritzia ezagutzeko. Horren adibidea



dugu ONCerekin egindako coworking saioak, focus group txikien bidez, ideia desberdinak erabiltzaileei igorri, eta haien ikuspegia entzunez.

11.3 Balio bereizgarria

Barneko eremuetarako sarbidea eta zirkulazioa hobetzea ikusmen úrico pertsoneri, haientzat normala izan arte, eguneroko jarduerak autonomia handiagoarekin eginez. Aplikazio mugikor honen helburua da pertsona horien bizi kalitatea hobetzea.

11.4 Erantzuten dien erronkak

Ez dago irtenbide integralik, BEGia-ren bidez eskain dezakeenaren modukorik. Benetako irtenbideak, hots, egunero aplikatzen direnak, ikusmen urriko pertsoneri eguneroko lanak egiten laguntzen dizkieten pertsonak dituztenak dira. Garatzen ari den aplikazioaren moduko irtenbide bat eskaini ahal izateak, pertsona horiei autonomia handiagoa ematea dakar, gizarteratze eta normalizazio hobea eginez. Horrez gain, proposatzen den irtenbidearen oinarrian normalean erabiltzen den tresna bat da: telefono mugikorra.

Une honetan aplikazioaren prototipo bat dute. Baina oso bertsio beta da, eta denbora behar du heltzeko eta hobetzeko. Aldi berean, azterlan bat egiten ari dira aplikazioa erabiltzaileentzat nolakoa izan behar den ezartzeko hain zuzen ere. Erabiltzaileen beharretara egokitutako erabilera interfaze bat egiten ari dira.

Proiektu honen helburua ez da dirua irabazteko enpresa bat sortzea, baizik eta irabazi asmorik gabeko enpresa bat, merkatuari irtenbide bat ematen diona, ikusmen urriko pertsonak gizarteratzen laguntzen duena.

Erabiltzaileen iritzia ezagutzeko, ekintzak hauek egin ditu:

- Focus group, ONCerekin, erabiltzaileen beharrak ezagutzeko. Horrez gain, lehen beta bertsioaren test txiki bat egin da. Rafael Ledesma, ONCeren bitartekaria BEGia-ren ekimenarekin, aktiboki lagundu du, eta proiektuan aholkuak eman ditu. Laguntzaile aktiboa da.
- Susana Rodríguez Gacio, Galiziako paratriatleta da, eta gaur egun medikuntza ikasten ari da. Bera albinoa da, ikusmen urrikoa, eta Olinpiadetan parte hartu du. Ekimenari buruzko iritzia eman die, eta unibertsitatean hirian baino gehiago kostatzen zitzaiola mugitzea esan zien.

Hauek dira gaur egungo erronkarik handienak:

- Barneko eremuetako datuak kudeatzea.
- Barnealde batzuen dinamismoa, epe laburrean asko aldatzen direlako.



11.5 Alderdi berritzaileak

- Teknologia berritzailea barnealdeetako eremu arazo bati irtenbidea emateko. Barneko posizionamendu bat da, eta teknologia hori orain arte segurtasun zaintzaileak aurkitzeko erabili zen, enpresetan, edo enpresaren barruko salgaiak kontrolatzeko. Applek pertsonak aireportuetan gidatzeko erabiltzen du.
- Beste aplikazio bat garatzen ari da barneko eremu guztien datuak kudeatzeko.
- Erabiltzaileek aktiboki parte hartzen dute irtenbidean. Irtenbidea behin eta berriz probatzen da erabiltzailearekin.

11.6 Eskalagarritasuna

Une honetan proiektuaren garapena eta jabetza pribatuak dira, eta epe laburrera ez dute "open source" gisa emateko asmorik.

Irtenbide hau munduko edozein tokitan erabil daiteke, eta behar duen edozein pertsonarentzat. Hasiera batean Euskadiko supermerkatu txiki batean aplikazioaren prototipo bat erabiliko dute.

Proiektuan hartzen ari diren esperientziari esker, beste gaitasun batzuk sortzen ari dira. Alde batetik, errobot bat sortzeko ideia agertu da, Rumba baten antzera ibiltzen dena, sentsoz batzuekin, objektuen kokapena detektatzeko eta koordinatuak sortzeko. Bestalde, aplikazio bat sortzeko beharra ere hauteman da, barnealdean beharrezko datu guztiak kudeatzeko.



11.7 Finantzaketa

Proiektua B-venture (Bilbo) ekitaldian aurkeztu dute, adituen iritzia jakiteko. Proiektuak duen finantzazio gehiena laguntza publikoak dira: Sariak, Spri eta Metxa, bazkide gisa.

Proiektuaren kostu nagusiak aplikazioaren garapena eta parte hartutako langileen lana dira.

11.8 Erakunde laguntzaileak

- Metxa
- BIC Araba
- Spri
- Araba ekinean
- ONCE

11.9 Emaitzak/eragina

- 25 pertsona baino gehiagotan probatu da ekimena.
- Sektorean esku hartutako eragile kopurua: 5 baino gehiago.



12. ORGAZ KONDEEN DORRE JAUREGIAREN BIRGAITZEA ETA TURISMORAKO SUSTATZEA

Sailkapena:	Enplegua, prestakuntza eta gizarteratzea
Harremanetan jartzeko pertsona:	María Jesús Calleja Ros
Kargua:	Micaela Portilla Eskolako zuzendaria
Web orria:	http://www.escuelamicaelaportilla.eus/practicas/

12.1 Ekimenaren deskribapena

Micaela Portilla Eskola Arabako Fontecha herrian kokatuta dago, eta Añanako Kuadrillak sustatutako enplegu eta prestakuntza zentroa da. Besteak beste LANBIDEK, ARABAKO FORU ALDUNDIAK (Euskara, Kultura eta Kirol saila) eta VITAL FUNDAZIOAK (Gizarte Ekintza) diruz laguntzen dute.

Eskola 1998ko abenduan jarri zen martxan, eta prestakuntza profesionala ematen die gazte langabeei (profesionaltasun ziurtagiriak eskuratzeko, hiru lanbide hauetako batean: igeltserotza historikoa, zureria eta baso arotzeria), jarduera profesionalaren txandakatuz (benetako obra batean lan egitea), Orgaz Kondeen dorre jauregia, Añanako Gatz Haraneko biltegiak eta Gasteizko Santa Maria katedrala birgaitzen ari dira. Bestalde, enpresan praktikak egiten ari dira, amaitutakoan, ikasitako lanbidean modu egokian aritu daitezen eta laneratzea errazagoa izan dadin.

Halaber, Bigarren Hezkuntzako Gradua lortzeko beharrezkoak diren gaitasunak eskuratzeko prestatzen dituzte.

Eskolan 6 profesionaltasun ziurtagiri ematen dira, LANBIDEren prestakuntza katalogoaren barruan daudenak:

- 2 igeltserotza ziurtagiri
- 2 baso arotzeria ziurtagiri
- 2 arotzeria ziurtagiri

Horrez gain, modulu osagarrietan prestatzen da:

- Aldamioen muntaketa.
- Orga jasotzailea.
- Laneko arriskuen prebentzioa.
- Gaitasun garrantzitsuak.
- Eskola graduatua.



- Enplegurako orientazioa.

Hauek dira eskolan prestatzeko baldintzak:

- 16 urtetik gorakoa izatea.
- Lanbiden enplegu eskatzaile gisa izena emanda egotea.
- Añanako Kuadrillan bizi diren pertsonen lehentasuna dute.

Micaela Portilla eskola Bigarren Aukerako Eskolaren bazkide kolaboratzailea da.

Nork sustatzen du proiektua?

Añanako Kuadrilla.

Nola parte hartzen dute herritarrek?

Proiektuan parte hartu nahi duten pertsonen Lanbiden izena emanda egon behar dute enplegu eskatzaile gisa. Baldintza hori betetakoan, 16 urtetik gorako edozein pertsona sar daiteke Eskolan.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

Informazioa edonork ikus dezake. Lan bat egiten da Añanako Kuadrillako eta Gasteizko gizarte langileekin. Horrez gain, CEAR errefuxiatuen elkartearekin eta beste erakunde hauekin lan egiten dute: Sartu, Gurutze Gorria, Caritas, EPA (helduen hezkuntza iraunkorra), CEBAD (urrutiko hezkuntza zentroa), Menas programa (laguntzarik gabeko adingabeak), Bigarren Hezkuntzako institutuak eta beste eragile batzuk, eskolako informazioa interesa izan dezaketzen pertsonen emateko.

Eskolak informazio guztia ikus daitekeen web-orri bat du.

Gako hitzak: Prestakuntza, gizarteratzea, ondarearen birgaitzea eta turismoa.

12.2 Aurrekariak

Añanako Kuadrilla da proiektuaren sustatzailea. Aldundiak dorrea eta jauregia eman zizkion Añanako Kuadrillari 1999. urtean, eta birgaitzea diruz lagunduko zuela erabaki zuen. Añanako Kuadrilla INEMekin (gaur egun Lanbide dena) harremanetan jarri zen, dorrea Lantegi Eskolako programen bidez birgaitzeko. Hasiera batean ez zegoen praktikari enpresan, ez eta turismo proiekturik ere. Proiektua hasiera batean gizarte arloko proiektua zen. Normalean ikasketak utzitako pertsonak ziren (Añanako Kuadrillan, Gasteizen eta inguruetan), eta bigarren aukera ematen zieten.



2012. urtean Lanbideko profesionaltasun ziurtagiriekin hasi zen, lantegi eskola desagertu eta prestakuntza, enplegu, errehabilitazio eta turismo proiektu bihurtu zen. Micaela Portilla eskola esan zioten, Arabako historialariaren omenez.

Krisia hasi eta dirulaguntzak nabarmen murriztu ziren, bai Foru Aldundiaren, bai Lanbideren eskutik. Egoera hori zela eta, erakunde pribatuetera jo zuten, hala nola Vital Fundaziora. Proiektuaren xede eta balioekin bat zetoenez, finantzatzea erabaki zuen. Akordioaren helburua proiektu osoaren berri ematea zen. Orduña lehen bisitak hasi ziren. Horrek eragin positiboa izan zuen herrirako eta eremurako, hala ere, aldizka egiten zen.

Pixkanaka turismo eskaintza integralagoa eskaintzen joan dira, eta jauregi dorrera bisita bakar eta eskusiboa egitetik, inguruko beste toki batzuetara ere egitera pasa dira. Esaterako, Añanako Gatz Harana edo Santa Katalina Lorategi Botanikoa. Horrez gain, bisita antzetzua ere eskaintzen zuten.

Gaur egun, hil bakoitzeko hirugarren igandean bisitak egiten dira. Bisitak plaza kopuru mugatua du; 54 guztira, autobusaren plazen arabera dena. Ibilaldia Gasteiztik abiatzen da, eta 17 euroko kostua du, tokialdaketa, bisitak eta bazkaria barne. Bisita antzetzua eskaintzen da aipatutako igandetan apiriletik aurrera, eta Santa Katalina Lorategi Botanikora. Horrez gain, bidaiantolatzaileekin lan egiten da, Añanako Kuadrillara turismoa erakartzeko. Orgaz Kondeen Jauregi Dorrea Espainiako Gazteluak eta Jauregiak Turismo Produktuko Elkarte eta Klubean sartzeko onartu dute.

Maiatzetik ekainera ikastetxeek bisitak egiten dituzte. Neska-mutilak Sobrongo ur museora joaten dira, eta hor, uraren ziklo integrala ikasten dute. Jarraian, Jauregi Dorrea bisitatzen dute, eta hor, Erdi Aroa gogora ekartzen dute. Gero, Lantarongo Udalera hurbiltzen dira, eta hor, udalak hitzarmen bat du Micaela Portilla Eskolarekin, kiroldegiko instalazioak uzteko, ikasleek ere han bazkal dezaten.

Proiektua sare hauen barruan dago, eta ziurtagiri hauek ditu:

- SITEC ziurtagiria (turismo kalitatea).
- Gaztelu eta jauregien sarea maila nazionalean.
- Eusko Jaurlaritzaren saria turismo berrikuntzan.
- Bazkide kolaboratzailea Bigarren Aukerako Eskoletan, E.2.O.

12.3 Balio bereizgarria

Proiektuaren helburua langabeen okupagarritasuna eta laneratzea hobetzea da. Taldea hiru talde handitan banatuta dago:

- Lanbide batean prestatzeko aukerarik izan ez duten eta espezializazio bat bereganatu nahi duten pertsonak.



- Emakumea. Pixkanaka duela gutxira arte gizonezkoak bakarrik ziren lanbideetan sartzan ari emakumeak, gizartearen bilakaeraren isla. Añanako Kuadrillako Berdintasun zerbitzuak Micaela Portilla Eskolako tailerretan lan egiten du.
- Zenbat nazionalitateko pertsonak (etorkinak), prestakuntza espezializaturik ez dutenez, laneratzeko zailtasunak dituztenak.

Bestalde, balio erantsietako bat prestakuntza praktikak egokitzea da, proiektuaren jasagarritasuna sustatzeko:

- Basogintza tailerraren bidez, praktiketan inguruko mendiak garbitzen dira, suteak saihesteko. Lan hau egiteko, eskolak akordio bat du Sobronekin eta Fontechako administrazio batzordearekin.
- Mintegiak lantzen ari dira mendian birlandaketak egiteko.
- Baso-sartze proiektu bat sortu da Fontecha eta inguruak urbanizatzeko.
- Praktikak enpresetan.

Azkenik, 2019an, jauzi kualitatibo garrantzitsua eman da baliabide honen aukera turistikoan. Horrela, bisitariaren esperientzia hobetu da, eskaintza diferentzial eta osagarri baten bidez.

12.4 Erantzuten dien erronkak

Proiektua lanik ez izateagatik, ikasketa maila baxua edo oso baxua eta prestakuntza profesional baxua izateagatik behartsuak diren pertsonentzat da. Zenbait kasutan gizartetik baztertuta daude eta bigarren aukera bat ematen zaie, gizarteratze bat sortzeko.

Eskolako ikasleen lanbide heziketak lanbide batean prestatzeko aukera eman nahi du, garapen profesional eta pertsonalerako. Horrez gain, balio hauetan hezi nahi du: lanaren aldeko gaitasunak bereganatzea, esfortzua sustatzea, autoestimua, motibazioa, puntualtasuna, ordena, egunero joatearen garrantzia, ikaskideak eta irakasleak errespetatzea...Horiek gabe, ez lirateke egongo gainerako lanak.



12.5 Alderdi berritzaileak

Gizarteratze proiektu integral baten bidez, garatzen den lurraldeak ere etekina ateratzen dio, turismoa bultzatuz, eskolako kudeatzaileek esku hartuz eta ikasleek egindako birgaitze lanaren bidez.

12.6 Eskalagarritasuna

Pixkanaka turismo eskaintza integralagoa eskaintzen joan dira, eta jauregi dorrera bisita bakar eta eskusiboa egitetik, inguruko beste toki batzuetara ere egitera pasa dira. Esaterako, Añanako Gatz Harana edo Santa Katalina Lorategi Botanikoa. Horrez gain, lurraldeko jatetxeek ere esku hartu dute, eta dorrerako bisita antzeztua da.

Horrekin batera, prestakuntzaren katalogoa beharren arabera egokituz joan da.

12.7 Finantzaketa

Hauek dira proiektuaren finantzatzaile nagusiak:

- Arabako Foru Aldundia
- Vital Fundazioa
- Lanbide (profesionaltasun ziurtagiriak)

Hauek dira proiektuaren kostu nagusiak:

- Bost irakasle
- Errehabilitazio materiala eta praktiketarako materiala.
- Inbertsioa.
- Langileen arduraldia.

12.8 Erakunde laguntzaileak

- Vital Fundazioa
- Lanbide
- Arabako Foru Aldundia
- Añanako Gatz Harana
- Santa Katalina lorategi botanikoa



12.9 Emaitzak/eragina

Tailerretako ikasle kopurua:36 ikasle ikastaroko, 12 tailer bakoitzean
Ikasle kopurua Lehen eta Bigarren Hezkuntzako gelan:36 ikasle
Profesionaltasun ziurtagiri kopurua:.....6 ziurtagiri
Enplegu kopurua:.....gutxi gorabehera 3 ikasletik 1 urtean
Enpresa pribatuekin egindako akordio kopurua: (praktikak enpresetan..... 18
enpresa

Eragina Añanako Kuadrillan (despopulazio egoeran dagoen eremua):

- Material kontsumoa eremuko enpresetan.
- 54 mahaikide eraman dituzte eremuko jatetxeetara, igande bat hilean.
- Añanako Kuadrillako beste turismo baliabide batzuk ezagutzera eman dituzte (Sobrongo Uraren Museoa, Santa Katalina Lorategi Botanikoa, Gesaltza Añana)

Proiektua urtero ezagutzen duen bisitari kopurua:..... 2.500 inguru



13. ZAHARTZE AKTIBOA GENERO IKUSPEGITIK

Sailkapena:	Zahartzea eta osasuna
Harremanetan jartzeko pertsona:	Mari Carmen Alastruey Merino eta Saioa Sánchez Chasco
Kargua:	Sortzaileak
Web orria:	http://asociacionkuentame.wixsite.com/asociacion-kuentame

13.1 Ekimenaren deskribapena

Kuentame irabazi asmorik gabeko elkarte da, eta diskriminazio anitzeko egoeran dauden emakumeei laguntza integrala ematen zaie. Zahartze aktiboko kanpainak egiten dira, adinekoentzat, genero ikuspegitik, bai Gasteizen, bai Arabako landa eremuan. Horrez gain, genero ikuspegia sartzen du erakundeetan, bai sektore publikoetan, bai sektore pribatukoetan.

Nork sustatzen du proiektua?

Kuentame elkarte.

Nola parte hartzen dute herritarrek?

Jarduera guztietan edonork parte har dezake.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

Informazioa publikoa da elkartearen web-orriaren ea toki interesgarrietan jarritako informazio kartelen bidez.

Gako hitzak: Zahartze aktiboa, entzute aktiboak, pertsonari erreparatzen dion arreta, genero berdintasuna, errespetua, enpatia.

13.2 Aurrekariak

2014ko irailean, gizarte esparruarekin oso lotuta zeuden bi bazkide sortzailek azterlan bat egin zuten Arabako Lurralde Historikotik, Arabako pertsona nagusiek gehien eskatutako beharrak zein ziren ezagutzeko. 2015eko erdialdean, ofizialki elkarte gisa erregistratzea erabaki zuten, zahartze aktibo eta osasungarriko eredu bat sustatzeko beharra egiaztatuta, bizi kalitatea bideratzeko tresna gisa, adinekoen ahalduntze prozesuak bultzatzeko, eta gizartean aktiboki



gizarteratzeko, bakardade egoerak prebenituz eta beren independentzia eta autonomia pertsonala bideratuz.

Arabako adinekoen, erretiratuena eta pentsiodunen "Las Cuatro Torres" elkarteak, Kuenamte elkartearen abian jartzen ari zen zahartze aktiboari buruz proiektua ezagututa, erakundea eskualdeko elkartearen bilera batean gonbidatu zuten, egiten ari ziren programaren aurkezpen bat egiteko. Une horretatik aurrera lankidetzaren estua hasi zuten Arabako zenbait herritako elkarteekin, horien artean, Legutio, Murgia, Santikurutze Kanpezu, Laudio, Arabako Errioxa eta abar.

Kuentame elkartearen filosofia da pertsonen beharretara egokitzea eta tailer dinamiko eta parte-hartzaileak garatzea, OMEk 1948. urtean eman zuen definizioan oinarrituz, "*ongizate fisiko, mental eta sozialaren egoera osoa*" izeneko definizioan alegia, eta herri horretan bizi ziren pertsonen eskaerei erreparatuz.

Zahartze aktiboak gizonengan eta emakumeengan modu desberdinean eragiten duela, funtsean bizitzan zehar hartu zituzten rol desberdinengatik. Horrela, pertsonak, jorratzen diren gaiekin bat egitea eta erabakitze gaitasun handiagoa izaten laguntzen dieten tresnak eta estrategiak eskuratzea lortu zuten. Beraz, autonomia pertsonal eta independentzia handiagoa.

Besteak beste tailer hauek garatu dituzte:

- Dementziarekin eta Alzheimer-en gaixotasunarekin biziitzea.
- Hitz egitea eta entzutea; elkarri ulertzeko trukua.
- Sexualitatea hirugarren adinean.
- Zinema Foruma jorratutako gaien inguruan.
- Zer zaila den bizikidetzaren.
- Estimulazio kognitiboko dinamikak, oroimena, pertzepzioa eta arreta lantzeko.
- Loaren nahasmenduak.
- Adimen emozionala eta gogo aldatzeak.
- Nagusia naiz, neuk erabakitzen dut nola bizi nahi dudana.
- Diskriminazioa eta tratu desagokoa adinekoei.
- eta abar.

Maiz joaten diren tokietako batzuk:

- Laguardiako etxebizitza komunitarioa.
- Arabako zenbait udalerritan. Laudio, Legutio eta Murgia...

Elkarteak etengabe garatzen ditu bere proiektuak urte osoan zehar, geroago lortzen duten finantzazioa axola gabe. Horrela, artatzen dituzten pertsonen



beharrei berehala erantzuten diete. Ekimen hau handituz joan da hartutako esperientziari esker, pertsonei egokitutako irtenbideak eskainiz.

13.3 Balio bereizgarria

Elkarteak geroago egiten dituen gauza guztiak, tratatzen dituzten pertsonen beharrei erreparatzen diete, entzute aktiboa eginez eta pertsona kontuan hartzen duen zerbitzua eskainiz.

Ideiak, sentimenduak adierazten jakitea eta entzuten jakitea oso garrantzitsua, informazio baliotsua ematen dutelako, hitz egiten duena garrantzitsutzat hartzen du bere burua, solaskideak natura eta arazoaren zenbaterainokoa ebalua dezake, eta irtenbideak bilatzeko plan bat garatu.

Komunikazio terapeutikoarekin, laguntza, entzute eta elkarrizketa rola ezartzen da. Haren bitartez sortzen den harremana berezko bihurtzen da, komunikazio prozesuan barruan egonez, adinekoak beti Kuentame elkartearen laguntza eta ardura jasotzen duelako beti.

Elkartearen hitzetan, *“ez dio axola ideia bat zein interesgarri den, ez du ezertarako balio besteek igorri eta ulertu arte”*.

Metodología horren bidez, gizarte harreman berriak sortzen dira, komunikazioa lantzen da, harremanetan jartzeko metodologia, euren artean entzuteko, laguntzeko, isolatu gabe.

13.4 Erantzuten dien erronkak

Proiektu honen xedea zahartze aktiboaren garrantziari buruzko informazioa ematea, horren aurrean sentikor agertzea eta kontzientziaztea da. Horri esker, pertsonak autonomoagoak izango dira, bere zainketetan parte hartuko dute, mendekotasun egoerak txikiagotuko dira, eta horrenbestez, beranduago sartuko dira egoitza zentroetan, adinekoak, hala nahi badute, beren etxeetan denbora gehiago bizi daitezzen sustatuz, bizi kalitate hobearekin.

Horrez gain, zaintzaileek egindako lanaren alde egiten dute, mendekotasun handiko edo narriadura kognitiboko egoeretan dauden pertsonekin bizitzeko jarraibide eta estrategiak erakutsiz.

Ahalduntze prozesuak bultzatu eta laguntza sareak sor daitezela sustatzen da, bakardade eta gizarte isolamendu egoerak saihesteko helburuarekin.



Elkarteak tailerren bidez aurkitutako beharrei erantzuten die. Eskaera zehatzak dira, udalerrietako udalek egindakoak, pertsonen artean sareak sortuz, ahaldunduz eta erronka berriei aurre egiteko gaituz.

13.5 Alderdi berritzaileak

- Norberak sortutako estimulazio kognitiboko dinamika.
- Jorratzen diren edukien egokitzapena, genero ikuspegia barne hartuz.
- Pertsonen jakintza eta esperientziak barne hartzen dituzten beste ikuspegi batzuk eskaintzea.
- Prestakuntza tailerrak Gizarte Ongizateko Foru Erakundearen boluntariora programarako.

13.6 Eskalagarritasuna

Proiektu hau landa eremuan hasi zen, eta gaur egun arte zabaltzen joan da. Bertaratutako pertsonen gogobetetze maila handia adierazi dute.

Proiektu hau egiten den herri guztietan gaur egun jarraitzen dute, garatzen dituzten dinamikek pizten duten interesarengatik.

2020. urterako proiektu iraunkor bat ezarri nahi dute, hauek barne hartzen dituenak: natura, baliabideak, kulturartekotasuna eta belaunaldi artekotasuna.



13.7 Finantzaketa

Hauek dira finantzazio-iturri nagusiak:

- Foru Erakundea (Arabako Foru Aldundia).
- LAUDIO (Aldundiaren berdintasun, lankidetzeta eta kultura artekotasun zerbitzua).
- Bazkideen kuotak.
- Sortzaileen berezko funtsak.

Proiektuaren kostuak bazkideek, beste elkarte batzuek eta administrazio publikoak hartzen dituzte bere gain. Hauek dira nabarmentzen diren kostu nagusiak:

- Tokialdaketak.
- Dinamiketarako materiala.
- Berdintasuneko teknikariak / Dinamizazioko koordinatzaileak.
- Emandako ordu kopurua.

13.8 Erakunde laguntzaileak

Gaur egun ez dago lankidetzeta publiko pribaturik, baina horretan lan egiten ari dira. Hauek dira erakunde laguntzaile nagusiak:

- Lau dorreak.
- Bakerako lankidetzaren aldeko biltzarra.
- Landa eremuetako adinekoen elkarteak.
- Landa eremuetako gizarte langileak.

13.9 Emaitzak/eragina

2019an egindako tailer kopurua:.....48 tailer
Eragindako pertsona kopurua 2019an:.....1.000 inguru
Parte hartu duten pertsonen gogobetetze maila handia.



14. HIRIKO ORTU KOLEKTIBOA

Sailkapena:	Jasangarritasuna
Harremanetan pertsona:	jartzeko Soraya García San Millán
Kargua:	
Web orria:	http://www.bioalai.org/

14.1 Ekimenaren deskribapena

Ingurugiro gaietarako zentroaren (CEA) bidez, Gasteizko Udala hiriko baratzezaintza bultzatzen ari da hiri eta hiri inguruko eremuetan (eraztun berdea), hiriko azpiegitura berdea gauzatzeko, elikagaien ekoizpena eta bertako kontsumoa sustatzeko eta elikadura osasungarria eta aisialdi aktiboa bultzatzeko helburuarekin.

Proiektu honen helburua da herritarrak ekoizpenaren, bertako elikagaiak eta elikagai ekologikoak kontsumitzearen garrantziaz jabetzea, eta Gasteiz inguruan aukera hori bideragarri egiten duten proiektuetan parte hartzea.

Gaur egun, Gasteizen, hiriko baratzezaintzako ekimen mota desberdinak daude eremu publikoetan:

- Eraztun Berdeko udal ortuak.
- Ortu ekologikoak gizarte zentroetan.
- Erkidegoak kudeatzen dituen ortu ekologikoak.
- Eskolako ortuak.
- Ortuak adinekoen gizarte eta kultura zentroetan.
- Unibertsitateko ortu ekologikoak.
- Hiri baratzezaintzako proiektu autonomoak.

Bioalai Elkarteak talde komunitario bat zenbait prestakuntza sortzea erabaki zuen, 4 urtetan ortu baten kudeaketa komunitarioa sustatzeko.

Nork sustatzen du proiektua?

Bioalaik, bazkideen aldetik, eta Udalak, lurzatia utziz.

Nola parte hartzen dute herritarrek?



Udalak ikastaro bat egin behar du ortuaren oinarritzko mantentzeari buruz, lurzattia 4 urtez jaso ahal izateko. Urteko kuota bat ordaindu behar dio eskatzaileak udalari lurzattia erabiltzeagatik. Bioalaik bilerak egiten ditu kooperatiban eta ortuko lanak antolatzen ditu. Bioalai-ren ortuan parte hartzeko bazkidea izan behar da, baina edozein pertsonak eska dezake lurzati bat udalean.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

Udaletxean edo CEAREN bidez. Informazioa edonork ikus dezake.

Gako hitzak: Erkidegoa, janari osasungarria, KM0, talde lana.

14.2 Aurrekariak

Kooperatibak ortu komunitario bat egitea proposatu zien bazkideei. 2016ko azaroan Bioalaik bazkide guztiei deitu zien, proiektuaren oinarriak eta aurreikuspenak ezartzeko. Horrela, Gasteizko Udalaren laguntza ere eskatu zuen.

Gasteizko Udalak lurzati bat adjudikatu zion Bioalairi Abetxukon, 2017an, udaleko aisialdi ortuetan. 20-21 pertsona inguruko talde bat lanean hasi zen ortu komunitarioan, hala ere proiektuan parte hartzen duten pertsonen kopurua murrizten joan da. Uzta ortua zaintzen lan egiten duten pertsonen artean banatzen da.

Halaber, 2017an, ingurugiro gaietarako ikastegiaren dirulaguntza baten bidez, udalerrian hiri nekazaritza ekologikoko jarduerak egiteko, ortuaren inguruko ikastaro ziklo bat antolatu zuten.

Mota askotako jendeak parte hartzen du ekimenean: familiak, gazteak, baina gehienak erretiratuak eta langileak dira.

Elkarteak mugak hautematen ditu udalak kudeatutako ortuetan. Alde batetik, Zadorra igotzen denean, ortuak urak hartzen ditu. Bestalde, udalak ezarritako arautegia dela eta, zenbait material tutoretza orduetan bakarrik erabiltzen dira. Bestetik, ortuetan erabiltzen den materiala ez da berritu, eta faltatzen hasi da. Ortuaren zainketan lan egin duten pertsonen esperientzian oinarrituz, ureztatze sistema egokia eskatzen dute, izan ere, gaur egun dagoena ez da oso egokia.



14.3 Balio bereizgarria

Ortua erkidego ikuspegi batetik lantzea, pertsonen arteko harremanak bideratuz, esperientziak partekatuz eta erkidegoan lan egiten eta bizitzen ikasiz. Proiektuaren bidez harreman berriak sortu dira, adiskidetasun kultura bat sustatuz.

Bestalde, pertsonen kontzientziazio ere lantzen da, elikadura osasungarriagoa sustatuz, modu jasangarrian landatutako elikagaiak erabiliz, kontserbagarriak eta gehigarriak saihestuz. Hori guztia OKM-ko elikagaiak sustatzeko helburuarekin, eta eragina arintzen kontsumitzen diren elikagaien karbono aztarnan.

Bioalaik ortuaren dinamizazioa eta prestakuntza kudeatu du, ekimen honetan parte hartu duten pertsonen behar eta kezken arabera. Entzute aktiboa egin da eta partaidetza sustatu. Lan hori egiteko, bilera parte hartzaileetarako deialdiak egin dira, eta neurrirako prestakuntza eskaintzeko lan egin da, bazkideek proposatutakoa kontuan hartuz.

Proiektuari Ester, ortuaren zainketan eta prestakuntzetan parte hartu duten pertsonak beren ortuetan aplikatu ahal izan dituzten gaitasun batzuk hartu dituzte.

14.4 Erantzuten dien erronkak

Prestakuntza sustatzen du ortu baten zainketan eta eraikuntzan, bertako elikagaien eta elikagai ekologikoen kontsumoaren garrantzia igorritz, aisialdi aktiboa sustatuz eta erkidegoen lan eginez.

14.5 Alderdi berritzaileak

- Ortuaren kudeaketa erkidego baten bitartez.
- Parte hartutako pertsonen beharretara egokitutako prestakuntza.
- Ortua zaintzeko eta lantzeko teknika berriak.

14.6 Eskalagarritasuna

Proiektuak ez du izan ibilbide handiagorik hasiera batean proposatutakotik kanpo, eta ez dira beste ekintza batzuk sortu.

Ekimen honetan parte hartu duten pertsonak ezagutza batzuk bereganatu dituzte, eta etorkizunean beren proiektu pertsonaletan aplikatuko dituzte.



14.7 Finantzaketa

Hauek izan dira proiektuaren finantzatzaile nagusiak:

- Bioalai eta ingurugiro gaietarako zentroa (CEA)
- Funts propioak

Proiektuaren kostuak ez dira handiak izan. Kosturik handiena ortua modu egokian lantzeko materiala izan da.

14.8 Erakunde laguntzaileak

Proiektua egiteko lankidetzan egon da Bioalai eta Gasteizko Udalaren artean, ingurugiro gaietarako zentroaren (CEA) bidez.

14.9 Emaitzak/eragina

Sustatzaile kopurua:20 inguru

Egindako ikastaro kopurua:6 inguru



15. ONGI ETORRI ALDE ZAHARRERA

Sailkapena:	Gizarteratzea
Harremanetan pertsona:	jartzeko Izaskun Fernandez Otegi
Kargua:	Elkarteko lehendakaria
Web orria:	http://blog.goian.org/es/

15.1 Ekimenaren deskribapena

Goian gizarte eta hezkuntza proiektu bat da, eta helburua bizikidetza bat bideratzea da, errespetuz, komunikatuz eta lurralde berean (kasu honetan Gasteizko alde zaharrean) dauden pertsona, talde eta erakundeak lankidetzan arituz. Pertsona guztientzat, eremu, inguru edo lurralde baten parte sentitzea ezinbestekoa da banako gisa nortasuna eraikitzeke, eta baita bizikidetza horren sorkuntzan parte hartzen duen auzoko gisa ere. Eta horrek, hor barruan egoteko banakako esfortzua zein inguruak eraikitzen dituzten gizarte aldaketa konplexuagoak, hartzen dituzten proposamenak eta ongi sentiarazten duten proposamenak eskatzen ditu.

Lana aisialdiaren esparruan garatzen da, auzo horretan bizi diren pertsonekin. Goian erakundeak Alde Zaharreko neska-mutil guztiek kirol edo kultur arloko talde proiektuetan auzoan gozatzea eta parte hartzea nahi du, askotariko jardueraz osatutako programazioaren bidez. Talde horietan guztietan baterako hezkuntza, euskararen bultzada, partaidetza eta aniztasuna lantzen da balio gisa. Azken urteetan proiektua handitu da, auzoko helduei topatzeko eremuak ere eskainiz.

Nork sustatzen du proiektua?

Goian kultura eta kirol elkarteak.

Nola parte hartzen dute herritarrek?

Alde batetik, boluntarioak, elkartearen bidez. Bestetik, Gasteizko alde zaharreko gazteak, elkarteak proposatutako ekintza eta jardueren bidez.

- Hezkuntza taldea.
- Talde proiektuak.
- Oporretako jarduerak.



- Jarduera komunitarioak.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

Bai, auzoko familiekin izandako harreman zuzenaren bidez, batak besteari kontatuz, web-orriaren bidez eta eskoletan, institutuetan, kartelen eta sareko lanaren bidez auzoko elkarte eta taldeekin.

Gako hitzak: Kulturartekotasuna, sozializazioa, aniztasuna, baterako hezkuntza, partaidetza, erkidegoko eremuak, euskara.

15.2 Aurrekariak

Elkartean 2012. urtean sortu zen legez, baina proiektua 2008. urtea baino lehen sortu zen informalki. Ramon Bajo ikastetxeko guraso elkarteak, klaustroa eta kaleko hezkuntza dira proiektua sustatzen duten eragileak. Erkidegoa sortzeko eta auzoan bizi ziren errealtate desberdinen arteko baterako jarduerak egiteko beharra zegoen. Norabide guztietan integratzea, harremanak sortuz, beste kultura batzuetatik ikasiz eta pertsonak aberastuz. Prozesu horren ondorioz, lotutako aldatetako bat A eredutik D eredura aldatzearen alde egitea izan zen. Bertako pertsonen eta migratutako pertsonen arteko harremana sustatzea zen xedea, baita maila ekonomiko desberdina zuten familiekin ere.

Bestalde, beste ikastetxe batzuk barne hartzeko esfortzua ere egin zen, eta gaur egun, Alde Zaharreko inguruko eskolekin harremanetan jarraitzen da.

15.3 Balio bereizgarria

Kaleko hezkuntzaren bidez, Goian erakundeko hezkuntza taldeak, elkarteak eta auzokoek nahi ez den aisialdiaren arloa landu behar zela ikusi zuten. Proposatzen diren ekintzak haur eta gazteen eskaeretara mugatuta daude. Horrela, zenbait ekintza eskaintzen dira, askotariko eskaintza baten bidez. Helburua da denon artean auzo atsegina eta solidarioa eraikitzea.

Ekintza guztietan hiru printzipiori jarraitzen zaie:

- Komunitatea.
- Partaidetza.
- Koordinazioa eta sare lana beste erakunde batzuekin.



15.4 Erantzuten dion erronka

Alde Zaharrean bizi diren pertsonak aberastea, erkidego integratzaile bat sortuz, kultura anitzekoa dena, askotarikoa eta harreman bidezkoa.

Horretarako, zenbait ekintza egin ziren, hala nola:

- Haur eta gazteentzako kirola eta kultura.
- Publiko heldua, ingurumen arloko jarduerak eta ibilaldiak.
- Auzoko jardueretan parte hartzea.
- Jarduera desberdinetarako sareak, ekimen horietan lagunduz eta ekarpenak eginez.
- Ekimenaren koordinazioa sustatzen da beste zentro batzuekin.
- Zenbait ekintza beste auzoko eta hiriko beste elkarte eta eragile batzuekin.

15.5 Alderdi berritzaileak

Alde zaharrean bizi diren pertsonak integra daitezen eta elkar ezagutu ditzaten lan egiten da, horrek errespetua sortzen duelako. Beste sare batzuk sortzea, auzo berean bizi diren pertsonen denentzako ingurune batean eraikitzeko aukera izan dezaten.

Goian kultura eta kirol elkartearen helburua ez da per se zerbitzuak eskaintzea. Bere helburua da elkarte parte-hartzailea izatea, eta pertsonen proiektuan parte hartzea, laguntzea eta ekarpenak egitea.

15.6 Eskalagarritasuna

Beste eskola, talde eta elkarte batzuekin lan egiten denez, gero eta eremu gehiago barne hartzen dira. Horrela, beste xede publiko batzuk ere gehitzen dira. Gazteen ikuspegitik hasi zen, eta orain, sare zabalagoak egiten ari dira. Gero eta zabalagoa den errealitate horretan oinarrituz, auzoan sortzen diren egoera berriei erantzun nahi zaie.

Horren adibidea *Ongi etorri Alde Zaharrera* proiektua daukagu. Horren bidez, ahultasun egoeran dauden auzoko pertsonen (auzora heldu berriak direnak, 0 fasean daudenak, bestelako hezkuntza erreferente formalik gabe, eskolatu gabeko adingabeak) laguntza soziokomunitarioa ematen zaie.



15.7 Finantzaketa

Hauek izan dira proiektuaren finantzatzaile nagusiak:

- Gasteizko Udala
- Bazkideen kuotak
- Beste erakunde batzuek proiektu jakinetarako emandako dirulaguntzak
- Boluntariora
- Beka komunitarioak

Hauek izan dira kostu nagusiak:

- Emandako ordu kopurua.
- Jardueretako materiala.
- Komunikazioa
- Garraioa
- Kudeaketa
- Aseguruak

15.8 Erakunde laguntzaileak

Lankidetzeta handia dago, bai publikoa, bai pribatua. Besteak beste udala, elkarteak, auzoko plataforma, banakako pertsonak.

15.9 Emaitzak/eragina

2019-2020 ikasturtea:

Parte-hartzaile kopurua:

- Hezkuntza proiektuetan parte hartzen dute 220 adingabeak.
- Batez beste 100 parte-hartzaile urtean Helduak proiektuetan.

Egindako jarduera kopurua:

- 16 urtetik beherakoentzako hezkuntza proiektuak: 18 parte hartzaile.
- 16 urtetik gorakoentzako proiektuak: 7 parte hartzaile.
- Jarduera komunitarioak: batez beste 15 urtean, auzoaren beharren arabera.
- Oporretako jarduerak: batez beste 5, kanpaldiak, Auzolekuak...
- Jarduera bereziak: Tailerrak, bisitak...Goian erakundearen proiektuaren beharren arabera.



16. LASTO EKOLOGIKOA

Sailkapena:	Jasangarritasuna
Harremanetan jartzeko pertsona:	Jose Veiga García
Kargua:	Sortzailea
Web orria:	http://EcoPaja.com/

16.1 Ekimenaren deskribapena

ECOPAJA BIOCONSTRUCCION MODULAR izeneko proiektuak etxebizitza osasungarriak diseinatu eta eraikitzen ditu, material naturalekin eta eraginkortasunik handieneko materialekin.

“EcoPaja moduluak” garatu ditu, formatu handiko eraikuntza elementua dena. Egitura elementu gisa zur trinkoa erabiltzen du, eta gari lasto trinkotua elementu isolatzaile gisa. Ezaugarri bereziki termikoak, akustikoak eta bioklimatikoak ditu.

Sistema honekin eraikitako eraikinek ia kontsumorik gabeko eraikuntzetarako (nZEB) eraginkortasun energetikoko mailarik handienak lortzen dituzte. Horrela, Alemaniako *Passivhaus* estandar energetiko zorrotzak eskatutako baldintzak betetzen ditu.

Hauek dira teknika honen onurak:

- Eraginkortasun energetikoa
- Material naturalak
- Eremu osasungarriak
- Diseinu ekologikoa

Aurrez fabrikatutako elementua da, fatxadako itxitura eta karga horma gisa, forjatu sanitario eta estalkiko panel gisa erabiltzeko.

Proiektuak egiterako orduan, bioeraikuntzako eta bioklimatizazioaren irizpideei jarraitzen zaie, gutxienezko azterna ekologikoa eta transformazio gutxi edo transformaziorik ez duten materialak erabiliz. Horrela, “Karbono negatiboa” eraikitzeko materialtzat hartzen dira, materialek ez dutelako egiten CO2 isurpenik fabrikatzean. Horrez gain, karbono dioxidoa xurgatzen dute bizitza zikloan, lastran eta zuran atxikita geratuz.

Nork sustatzen du proiektua?



EcoPaja

Nola parte hartzen dute herritarrek?

Lasto ekologikoko enpresaren zerbitzuak kontratatuz.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

Informazio hori guztia webean dago, eta gero, bezeroak eskatzen duen informazio teknikoari buruzko informazio zehatzagoa bidaltzen zaio.

Gako hitzak: Eraikuntza jasangarria, etxebizitza industrializatua, karbono negatiboko eraikuntza, eraikuntza pasiboa, aurrez fabrikatutako panel ziurtatua.

16.2 Aurrekariak

Sortzailea arkitektura teknikoa ikasi zuen, eraikuntza batean izandako esperientzia baten ondorioz. Beste herrialde batzuetan eredu eta teknika desberdinak ikusita, bioeraikuntza aztertzen hasi zen. Esperientzia hartzeko, zenbait pertsonari lagundu zien, hala nola autoeraikuntzan eta elkarlanean. Mota horretako eraikuntzan beharrezko esperientzia eta praktika hartuta, eraikuntza horiek zenbait hutsune zituztela konturatu zen. Orduan lastoa erabiliz eraikitzeo ideia lantzen hasi zen, jadanik zeuden zenbait lanetan oinarrituz. Jakinda merkatuan lastoa gero eta txarrago baloratzen zela, lastoa material egokitzat hartu zuen bigarren bitza bat emateko. Horrela, lasto ekologikozko moduluak egiten hasi zen.

EcoPaja Bioconstrucción Modular enpresa 2016. urtean sortu zen, lastozko eraikuntza estandar egiteko helburuarekin. Proiektua 2013. urtean sortu zen, eta zenbait proba eginda, lasto ekologikoko moduluen lehen prototipoa merkaturatu zuen, mota horretako moduluzko eraikuntza erabiltzen zuen Estatuko lehen etxebizitza eraikiz. Etxebizitza bat eta nekazaritza pabiloi bat izan ziren, Zamudion, Bizkaian.

Moduluak ekoizteko makinak neurrira diseinatu eta fabrikatu dira, lasto ekologikoko moduluek dituzten beharretarako. Modulu guztiak Gasteizko Udalak Jundizen utzitako fabrika batean fabrikatzen dira. Hor egiten dute lan 2016. urtetik eta ziurtatuta daude.

Lasto gehiena Arabatik dator, hala ere, alboko lurraldean ere erosten da, hala nola Burgosen. EcoPaja enpresak esfortzu handia egiten du lehengai 0KM-koa eta bertatik hurbilen dagoen leku batekoa izateko.



16.3 Balio bereizgarria

Proiektu honen balio erantsia da denborak, kostuak eta hondakinak murrizten direla eraikuntzan. Horrela, plangintza handiagoa ematen da eraikitzeke orduan. Horrek guztiak eragin txikiagoa ere ekartzen du CO2 aztarnan. Beste balio positibo batzuk dira:

- Jasangarritasun handiagoa eraikuntzan.
- Kontsumo jasangarria eta energia eraginkortasuna.
- Azterketa bioklimatiko, aurrezki eta aprobetxamendu handiagorekin.
- Eragin positiboa mota honetako eraikuntzan bizi diren pertsonen osasunean, material naturalekin lan egiten delako, barneko eremu naturalak sortuz.

EcoPaja Bioconstrucción Modular da bere ezaugarri teknikoen, saiakuntzan eta ENAC egiaztapen erakunde nazionalak egiaztatutako laborategi ofizialek egindako proben ziurtagiria duen Estatuko enpresa bakarra.

Saiakuntza termikoak egiterakoan, lankidetzaren publiko pribatua dago Eusko Jaurlaritzaren, EHUren eta Tecnaliaren artean.

16.4 Erantzuten dien erronkak

Eraikinek CO2 igorpen orokorren herena egiten dute. Egoera aldatzeko modu jasangarriago batean eraiki behar da. Moduluzko eraikuntza sistemaren diseinuaren arabera eraikitzen dira etxeak eta lan eremuak. Horrela, gutxienez % 90eko CO2 aurrezten dute.

Bestalde, proiektu honi esker, irtenbide berritzaile bat ematen zaie Araban urtero sortzen diren 180.000 tona lasto ingururi.

16.5 Alderdi berritzaileak

Moduluak material naturalez osatuta daude, ingurumena errespetatzen dute eta portaera higrotermiko, akustiko eta bioklimatiko bikaina dute. Ez dute konposatu organiko lurrunkorrik (KOL). Moduluek eginkizun hirukoitza dute: egitura izatea, isolatzea eta ixtea.



16.6 Eskalagarritasuna

Mota honetako proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoan eraikitzen dira, 100 km inguruko erradioan. Giltza eskura proiektuetan Estatu mailan lan egiten da.

Kontzientziario klimatikoa gero eta handiagoa da, eta EcoPaja enpresaren materialak arkitektoek eta ingurumen erantzukizuna duten sustatzaileek eskatzen dituzte, eremu bizigarri, eroso eta osasungarriak, kalitate eta iraunkortasun handiagokoak diseinatzeko edo sortzeko helburuarekin.

Gaitasun berriak sortzen ari dira, bezeroen esperientzian eta proposamenetan oinarrituz. Horren adibidea dugu EcoPaja moduluekin egiten ari diren proiektua. Isolamendu akustiko gisa erabiltzen dute etxeko musika estudio baterako, modulu horiek ezaugarri akustiko handiak dituztelako isolatzaile gisa.

16.7 Finantzaketa

Hauek dira finantzazio-iturri nagusiak:

- Finantzazio pribatua gehienbat.
- Araba ekinean ekimenaren dirulaguntza
- Álava Innova
- Sprii

Hauek dira proiektuaren kostu nagusiak:

- Berariazko makinak
- Eskulana
- Ziurtagiriak

16.8 Erakunde laguntzaileak

- Ensatec
- Tecnalia
- Egolf
- ENAC
- EOTA
- Ilac MRA
- EHU
- Eusko Jaurlaritza

16.9 Emaitzak/eragina

Amaitutako proiektu kopurua:15 inguru

Langile kopurua:5 inguru



17. % 100 OION

Sailkapena:	Kultura, artea eta gizarteratzea.		
Harremanetan pertsona:	jartzeko	Miren Martin Morato	
Kargua:	Conexiones plataformako koordinatzailea idazkaria	eta	improbables proiektu Artehaziako
Web orria:	http://conexionesimprobables.es/v2/		

17.1 Ekimenaren deskribapena

% 100 Oion auzokoen arteko bizikidetza hobetzeko Oionen garatutako proiektu baten emaitza da. Horretarako, disko bat grabatu dute, eta ekimenaren sustatzailea Kultura Berrikuntza, Arteak eta Gizarte Elkartea (Artehasia) da.

Diskoa doan deskarga daiteke Mursego web-orrian Bandcamp-en eta Spotifyn. Horrez gain, edizio mugatua ere badago, 200 alekoa, CDn, bIDEhUTS-en web-orrian eros daitekeena. CDaren azala Rafa Rodrigok egin du eta zabal daiteke.

Nork sustatzen du proiektua?

Kultura Berrikuntza, Arteak eta Gizarte Elkartea (Artehasia).

Nola parte hartzen dute herritarrek?

Deialdi bat egin zuen gizarte sareen eta buletinaren bidez. Herritarren edozein elkartek parte har zezakeen.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

Informazioa web-orrian ikus daiteke. Diskoa spotifyn deskarga daiteke, eta doan da.

Gako hitzak: Herritarren partaidetza, artea eta herritarrak, kultura, gizarteratzea, bizikidetza.

17.2 Aurrekariak

% 100 Oion proiektua gizarte zibilaren artea sustatzen duen komanditario berreen programaren barruan kokatuta dago. Metodologia hori (Nouveaux



commanditaires) duela 20 urte sortu zen Frantzian, François Hers artistaren eskutik, eta horren bidez, bertako bazkideek garatutako 400 arte proiektu baino gehiago sortu dira Europa osoan. Plataformak artista bati arte eskaera bat egiteko aukera ematen dio pertsona talde bati, nahi edo behar baten ingurukoa. Askotarikoa izan daiteke, hala nola espazio publikoan egindako esku hartzea, memoria historikoa biltzea, emakumeak udalerrian duen eginkizunaren aldarrikatzea eta abar.

Obrak eta sorkuntza garaikideak eskatuz, pertsona talde hauek komanditario gisa aritzen dira, eta erantzukizun bat hartzen dute bere erkidegoarekin, dauden tokian: auzo batean, landa ingurunean, lantokian eta abar. Horretarako, jarduera artistikoetan aditua den bitartekari batek prozesuan laguntzen du, eskaera formalizatuz, artistak proposatzen ditu eta komanditarioekin batera obraren ekoizpena bultzatzen du, taldeak proposatutako xedeei erantzungo diena.

Proiektu hauek hiru fasetan garatzen dira. Lehendabizi, lan egin nahi den erronka finkatu eta komanditarioen taldea sortzen du, deialdira aurkeztutako baino pertsona gehiago esku hartuz, lan taldea askotariko pertsonaz osa dadin. Gero, erronkari nola erantzun nahi zaion pentsatzen du, zer motatako artelanarekin, eta abar. Bigarren fasean bitartekariak zenbait artista proposatzen ditu eta komanditarioekin norekin lan egin nahi duten aukeratzen dute. Horrela, aurreproiektu baten diseinuari oniritzia ematen diote. Hirugarren fasean obra edo arte proiektua egin eta zabaltzen da.

Artehasia, Kultura Berrikuntza, Arteak eta Gizartea Elkartea irabazi asmorik gabeko erakundea da, eta 2011. urtean sortu zuten artearen eta enpresa munduaren arteko elkarrekintzekin lotutako kultura arloko profesionalek. 2016ko ekainean deialdi bat egin zuen, eta besteak beste *Bitartean Jolasean-Entretanto Entretente* elkartea aurkeztu zen, kultura arteko bizikidetzaz lantzeko beharrari erantzuteko ekimen bat bilatzea proposatuz.

Oiongo proiektuaren kasuan, Idoia Zabaleta izan zen bitartekaria. Diskoa sortzeko prozesua ia bi urtetan garatu zen, hiru fasetan.

Proiektuaren hasieran zenbait pertsona gonbidatu zituzten (jatorri, kultura eta lanbide desberdinetakoak) komanditarioen taldean sartzeko. Talde hori 10-12 pertsona inguruk osatu zuten, eta lehen urtean bitartekariarekin bildu ziren, zenbait topaketetan, arte lanak bete behar zituen baldintzak ezartzeko.

Lehen saioetan talde kohesioa eta konfiantza landu zuen bitartekariak. Zenbait hiletan lan eginda, helburuak ezarriz eta aurreikuspenak aztertuz, baldintza hauek adostu zituzten arte lana egingo zuen pertsonarentzat:

- Oiongo herriari berriaz zuzenduta egon behar zuen, eskaintza edo opari gisa.
- Itxura eroso eta ludikoa izan behar bazuen ere, erkidego inklusibo baten errebindikazioa barne hartu behar zuen.
- Sorkuntza prozesuak parte hartzailea izan behar zuen.



- Obrak hezkuntza dimentsio bat barne hartu behar zuen.
- Zenbait belaunaldiren partaidetza barne hartu behar zuen.
- Pentsamendu kritiko eta transformatzailea proposatu behar zuen, bizikidetza hobetzearen aldekoa.

Proposamen horrekin, soinuekin eta musikarekin lotuta egon behar zuela esan zuen bitartekariak.

Artista jakin batekin lotu zen proposamena: Mursego (Maite Arroitauregi) konpositore eta interpretea, bere eklektizismoarengatik eta musikaren bidez mezu errebindikatzaileak igortzeko gaitasunarengatik. Horrez gain, bere kantetan herriko istorioak jasotzen dira, paisaiak eta erritmoa gogora ekartzen ditu, hizkuntza desberdinak konbinatzen ditu, pertsona eta talde desberdinekin lan egiten du, eta hori guztia beharrezko poetikarekin diskoa Oiongo herrirako oparia izan dadin.

Orduan proiektuaren hurrengo fasea hasi zen. Hor, artista komanditario taldearekin bildu zen, beharrak eta aurreikuspenak ulertzeko, ingurua ezagutzeko eta bitartekariarekin batera diskoaren aurreproiektu bat proposatzeko. Proposamenean zenbait prozesuren aktibazioa deskribatzen da. Hor, talde eragileaz gain, herriko beste pertsona batzuek ere parte hartuko zuten, hitzak zein melodiak konposatzeko eta interpretatzeko.

Sorkuntza eta zehazte prozesua udalerrian garrantzitsuak diren edo diskoan parte hartzeko interesa agertu zuten pertsonekin bilduz hasi zen. Horrela, udal abesbatzaren, historialariaren, egileen kantaren bertako konpositorearen, bertsolarien eta gazteen inplikazioa eta laguntza biltzeko topaketak antolatu ziren. Emakume musulmanen ordezkariak, musika eskola, Eh Merchei rock taldea eta parte hartzeko interesa agertu zuten pertsonak ere kontuan hartu ziren. Proposamenak hasiera batean oso harrera ona izan zuen, eta bileretara joan ziren pertsona asko konposizioan laguntzeko prest agertu ziren, eta batik bat zenbait kantetan abesteko.

Diskoak bi aurkezpen ofizial izan zituen: bat, Oionen, bestea, Gasteizen, zenbait hilabete geroago. Halaber, hiri honetako auzo batean pregoi bat aurkezteko gonbidapena egin zioten parte-hartzaileei. Parte hartu zuen pertsona talde handi bat aurkezpenetan egon zen beti, eta harro erakutsi zuten diskoa.



17.3 Balio bereizgarria

Ekimen honen balio bereizgarria da arte eta herritarren proiektu bat dela, hau da, herritarrek hautematen dute arazo, nahi eta beharretarako irtenbideak daudela, artearen bidez konpon daitezkeela, ohiko bideetatik joan ordez. Herritarrek erronka bat konpondu behar zela hauteman zuten, eta eurek erabaki zuten zer egin, eta nola egin. Gizarte zibilaren partaidetza bultzatzea, artearen bidez, gizarte arazo bat konpontzeko helburuarekin. Proiektuak eremuko herritarren partaidetza handia izan du, eta beste udalerrri batzuetako pertsonak ere parte hartu dute.

Nabarmendu behar da emakume askok parte hartu dutela proiektuan. Udalerrian eta inguruan bizi diren herritarrek inplikazio handia agertu dute beti. Partaidetza gehienbat pribatua izan da, hala ere, inplikazio publikoa ere egon da neurri txikiagoan.

“Bitartean Jolasean” ekimenak kultura inklusioaren eta bizikidetzaren inguruko proiektuak garatzen jarraitu du.

17.4 Erantzuten dien erronkak

Proiektu honi esker, gizarte erronkak landu dira, hala nola bizikidetzaren, erkidegoa, inklusioa eta integrazioa.

Ekimenaren asmoa da kultura arteko bizikidetzaren lantzea eta biztanle etorkinen inguruko gezurrezko estereotipo eta zurrumurruak apurtzea. Horrez gain, pentsamendu kritikoago bat aktibatzea eta bultzatzea zen asmoa, pertsonak ezagutu gabe edo normalean ezagutzen ez den beste kultura batekoa izateagatik epaitzen ez dituenak. Azkenik, banakoengana hurbiltzen ziren eta ezagutzeko eta harremanetan jartzeko aukera ematen zuten puntu berdinak aurkitu behar ziren.

Horrek, lurraldea suspertzeko testuinguru bat sortzea ekartzen zuen, non norberaren nahiz taldearen hazkundea bilatzen baitzen, bere autoestimua hobetuz, toki batekoa izatearen harrotasuna agertuz, eta gizarte kohesioa indartuz. Herrian, arte sorkuntza erkidegoaren sorkuntzaren mende jartzen da, herritarren arteko bizikidetzaren erraztuz, eta hor, jatorria edo kultura ez dira kontuan hartzen.

17.5 Alderdi berritzaileak

Metodo berritzaile hauek erabili ziren:

- Diziplina desberdinen arteko hibridazioa.
- Arte partaidetza prozesuetan sartzea.
- Artistaren eta herritarren artean bitarteko izatea.



17.6 Eskalagarritasuna

Proiektuak oihartzun handia izan zuen eskualdeko eta Estatuko hedabideetan. Zurrumurruekin lotutako abestia kultura aniztasuna lantzen duten eta gizarte integrazioaren alde borrokatzen duten zenbait gizarte erakundek erabili dute.

17.7 Finantzaketa

Hauek dira proiektuaren finantzatzaile nagusiak:

- Carasso Fundazioa.
- Conexiones improbables plataforma.
- Arabako Foru Aldundia, kulturartekotasun saila.
- Artium

Hauek dira proiektuaren kostu nagusiak:

- Bitartekotza lana.
- Artistaren lana.
- Diskoaren edizioa, produkzioa eta argitalpena.
- Proiektuaren komunikazioa eta ikuskapena.

17.8 Erakunde laguntzaileak

- Komanditario taldea.
- Bitartean Jolasean-Entretanto Entretente elkarte.
- Idoia Zabaleta, bitartekari gisa.
- Mursego (Maite Arroitauregi), artista gisa.
- Arتهazi elkarteko kideak.
- Harkaitz Cano, abesti batzuen hitzen idazle gisa.
- Oionetik hurbil dauden herrietako herritarrak.
- Eremuko ikastolak.
- Oiongo abesbatza.
- Auroroen abesbatza.
- Eh Mertxe!
- Oiongo udala.
- Artium
- Arabako Txakolina

17.9 Emaitzak/eragina

- Beharrak detektatzeko ikuspegi taldea12 pertsona
- Kanten hitzak sortzea.....1.500 pertsona
- Entseguak.....80 pertsona
- Diskoaren aurkezpena, grabaketa eta banaketa.....200 pertsona
- Proiektuaren fase desberdinetan gehienbat emakumeek parte hartu dute.



18. HEZKUNTZA EMOZIONALA GAZTEENTZAT

Sailkapena:	Prestakuntza.
Harremanetan pertsona:	jartzeko Raquel Urtaran Nicolás
Kargua:	Sortzailea
Web orria:	https://www.awakegasteiz.org/

18.1 Ekimenaren deskribapena

Awake-Gasteiz 16 eta 22 urte bitarteko gazteen hezkuntza emozionala sustatzen duen elkarte da, bizipen tailerrak aplikatuz, beren gaitasunak eta berezko bertuteak ezagutzen lagunduz, bere xedeak eta esfortzuak bidera ditzaten. Horrela, sormena eta beren burua osorik garatuko dituzte.

Helburua gazte sentikor, geldiezin eta ikusnahiei laguntzea da, benetan nor diren, munduan zer toki duten eta beren bizitzarekin nondik jo jakin dezaten.

Awake-Gasteiz doako hezkuntza emozionalako proiektuan oinarritzen da. Academia Borja Vilasecak sortu zuen 2011. urtean, eta jadanik Espainiako 14 hiritan dago.

Eskainitako zerbitzuak:

- Gorputzaren, buruaren eta espirituaren artean osasuna eta oreka sustatzea.
- Buruaren funtzionamendua ezagutzea eta ulertzea. Pentsamenduak jakinda menderatzea eta kudeatzea.
- Emozioak arautzea eta adimen emozionala sustatzea. Beldurraren, izuaren eta tristuraren arazoak ulertzea.
- Mugatzen duten sinesmenak zalantzan jartzea eta gainditzea.
- Berezko gaitasunak, indarrak eta bertuteak aurkitzea eta sustatzea.
- Arazoak eta gatazkak ikasteko aukera bihurtzea.
- Besteekiko harremanak eta komunikazioa hobetzea.
- Balioetan oinarritutako autolidergoa sustatzea.
- Bokazio profesionala aurki dezatela sustatzea.
- Erantzukizuna trebatzea, bizitza betea eta zentzuduna sortzeko.

Awake-Gasteiz erakundearen xede nagusia da garapena sustatzea, pertsona modu egokian garatzea, banako gisa, eta gizarteko gizaki gisa. Horretarako, beharrezko tresnak emango zaizkio gazteari, bizitza betea eta zentzuzkoa izan dezan, berez dituen gaitasunak eta trebetasunak ezagutzuz.



Nork sustatzen du proiektua?

Awake-Gasteiz erakundeak.

Nola parte hartzen dute herritarrek?

1. Lehen urratsa: Idatzi mezu bat info@awakegasteiz.org helbidera, eskaera eta galdeketa bidal dezaten eskatuz.
2. Bigarren urratsa: Bete galdeketa eta bidali aurretik aipatutako helbide elektronikora.

Galdeketen arabera, hautagaien aurretiko hautaketa egiten da. Gero, zuzenean hautatzen dira etorkizuneko parte-hartzaileak, hautaketaren arduradunarekin elkarriketa pertsonal bat izanez. Hor, zertxobait gehiago ezagutuko dute hautagaia.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

Bai, web-orriaren bidez.

Gako hitzak: Garapen pertsonala, bokazio profesionala.

18.2 Aurrekariak

2012. urtean gutxi gorabehera sortzailea boluntarioa izan nahi zuela konturatu zen, gaztei eta haurrei lagunduz. Nola lagundu ahal zituen pertsonak, beren gaitasunak ezagut zitzaten eta zentzua duen lanbide bat aukera zezaten?

Bilaketa horretan La Academia aurkitu zuen, hezkuntza emozionaleko proiektu bat garatu zuten helburu berak zituzten gazteentzat: tresnak ematea beren burlaren bertsio hobea lortzeko. Hori bidera zezaketen pertsonak bilatu zituen, eta 2014. urtean martxan jarri ziren. Doako proiektu bat, beren burua hobeto ezagutu, talentuak eta bokazio profesionala aurkitu nahi zituzten 16 eta 22 urte arteko gazteentzat. AWAKE-GASTEIZ esan zioten. Orain Akademiatik independentea den elkarte da, eta proiektua beharren arabera aldatzen dute. Urtero aldatuz joaten den proiektua da.

Ikastaroa hiru tailer bloketan banatuta dago, eta bloke bakoitzak helburu bat du: AUTOEZAGUTZA, GARAPEN PERTSONALA eta BOKAZIO PROFESIONALA.

Ikastaroko gehieneko plaza kopurua 15 da, eta bakoitzak bere coach-a du. Gazteek 2,5 orduko 28 tailer jasotzen dituzte. Azkenean, gazteek beren burua hobeto ezagutzea lortzen da.



18.3 Balio bereizgarria

Ekimen honen balio erantsia da gazteak ahalduz direla, tresnak eta eremuak emanez, esperimendu dezaten eta feedback eta laguntza jaso ditzaten. Horretarako, eztabaidak sortzen dituzte, beren kezka dituzte, ahalduz, eta pentsatzera behartzen dituzte. Garrantzitsuena da gazteek konfiantza handitzea eta beren bizitza antolatzeke gai izatea, aldatzeke eragileak izan daitezke.

Programazioa gazteen eskaeretara egokitzen da, haien beharretara egokituz. Besteak beste gai hau landu dira: bullying, denboraren kudeaketa, gizarte nortasuna.

Proiektuak bideratzaileak eta erakunde laguntzaileak ditu proiektua aurrera eramateko. Besteak beste: Nahual elkarte, Asexoria, Setem eta unibertsitateak.

18.4 Erantzuten dien erronkak

Gazteen ahalmena nabarmentzea eta garatzea, eremu segurua eskainiz, beren burua hobeto ezagutzeko eta kontzientziaren garapena handitzeko, garapen pertsonaleko prozesuarekin batera ibiltzen den hasiera horretatik. Pertsonen arduratsuak eta helduak izaten laguntzea, beren bokazio profesionala aurkituz, beren indarrak kontuan hartuz.

Gizartean aro aldaketa gertatzen ari da, industria gizartetik informazioaren eta ezagutzaren gizartera pasatuz. Hor, ideiak, sormena eta bizi kalitatea hobetzen duten zerbitzuen berrikuntza nagusi dira. Globalizazio prozesua ez denez gelditzen, jokoaren arauak etengabe aldatzen dira. Hala ere, aldaketak gertatzen badira ere, hezkuntza sistema orokortua badirudi industria aroan gelditu zela. Beraz, autoezagutzan eta erantzukizunean oinarritutako benetako hezkuntza emozionala sustatzeko ordua da. Horrela, gazteei beren talentua ezagutzen eta garatzen lagundu behar zaie, funtzio profesional erabilgarri, sortzaile eta zentzudun baten zerbitzura. Nor izan gaitezkeen erabakitzeko askatasuna da jokoan dagoena.

18.5 Alderdi berritzaileak

Gizarte eragin hori sortu nahi dute, gazte horiek aldaketaren eragile izan daitezke prestatuz, beren eta gizarte guztiaren inguruak eraldatu ditzaten. Balio hauen bidez:

- **Batasun kontzientzia.** Taldeka lan eginez, eta koordinatuta.
- **Malgutasuna.** Buru irekia, eta ideia, pentsatzeko eta jokatzeko modu berrietara egokituz, eta haietatik guztietatik ikasiz.



- **Koherentzia.** Pentsatuz, esanez eta barne koherentziatik jokatzuz, jarrera zintzo, logiko eta kontsekuente batekin.
- **Errespetua.** Zer den onartuz, nahiz eta ez partekatu.
- **Grina.** Gustatzen zaiona egiten, zorientasuna ematen duen eta ezinbesteko energiaren betetzen duen giro atsegina sortuz.

18.6 Eskalagarritasuna

Proiektua beste lurralde batzuetan ere ezar daiteke, baina une honetan Gasteizen bakarrik garatzen da. Ereduan interesa duten beste herri batzuk hurbildu dira.

18.7 Finantzaketa

Hauek dira proiektuaren finantzatzaile nagusiak: Vital Fundazioa, Arabako Foru Aldundia (enplegua, merkataritza eta turismoa), Gasteizko Udala (gazteria saila) eta Gazteriaren Foru Erakundea.

Hauek dira proiektuaren kostu nagusiak: Parte hartu duten langileen arduraldia, azpiegitura, irudi gastuak (web orriak) eta administratzaileak.

18.8 Erakunde laguntzaileak

- La Akademia
- Vital Fundazioa
- Arabako Foru Aldundia
- Gasteizko Udala
- Gazteriaren Foru Erakundea
- Nahual elkarte
- Asexoria
- Setem

18.9 Emaitzak/eragina

- Ahaldundutako gutxi gorabeherako gazte kopurua: 90
- Interesa agertutako gutxi gorabeherako pertsona kopurua: 150
- Edizio kopurua: 6



19. AÑANA OPEN ESKOLA

Sailkapena:	Prestakuntza eta Gobernantza
Harremanetan jartzeko pertsona:	Iván del Caz de Diego
Kargua:	Aholkularia BIKOonsultores enpresan
Web orria:	http://www.ogp.euskadi.eus/ogp-compromisos/-/open-eskola-escuela-abierta-para-la-ciudadania/

19.1 Ekimenaren deskribapena

Añana Open Estola herritarren eskola irekiko euskal ereduaren esperientzia pilotua da Araban. Añanako Kuadrillak herritarrentzako eskola irekia abian jarri du, landa ingurunean mota honetan lehenengoa dena. Open Government edo Gobernu Irekiko nazioarteko lan ildotik, eskualde honek Añanako landa eremuan aitzindaria den ekimen honen alde egin du. Eskola irekiaren eredia Gasteizen, Añanan, Bilbon eta Tolosan garatzen da.

Nork sustatzen du proiektua?

Eredu hau Arabako Foru Aldundiak eta Gasteizko Udalak bultzatu dute, batera sortzeko prozesu publiko eta sozial parte-hartzaile batean, Euskadirako 2018-2020 Ekintza Planaren barruan. Idazkaritza teknikoaz BIKOonsulting y Gadamer enpresa arduratzen da.

Nola parte hartzen dute herritarrek?

Edozein herritarrek parte har dezake, eta urrats hauei jarraitu behar die:

1. Zure proiektuaren ideiak Añanako Kuadrillaren erronka hauetakoren bati erantzun behar dio:
 - Gizarte kohesioa.
 - Landa despopulatzea.
 - Gazteak lurraldeari atxikitzea.
2. Bidaliezaguzu zure ideia, zure datu pertsonalekin batera, openeskola@cuadrilladeanana.eus helbidera.
3. Añana Open Eskolaren saio batera joatea.

Informazioa edonork eskura eta ikus dezake?

Informazioa webgunean ikus daiteke, eta edozein pertsonak parte har dezake antolatzen diren saioetan. Prozesuaren jarraipena egitea eta konpromiso hartzea eskatzen da.



Gako hitzak: Partaidetza, berrikuntza, gobernantza, gizarte kohesioa, landa despopulatzea, gazteak lurraldeari atxikitzea.

19.2 Aurrekariak

Euskadirako OGP 2018-2020 Ekintza Planaren barruan 5 konpromiso proposatu dira. Konpromiso horietako bat herritarren eskola irekiko euskal eredu bat sortzea da.

Uztailaren 4an Kuartangoko bainuetxean Añana Open Eskola edo Herritarren Eskola Irekia aurkezteko jardunaldia izan zen. Kuadrillak 10 udalerrietako biztanleek parte har zezaten proposatu zuen, eta horretarako, bilera bat egin zuten, proposamenak bateratzeko, ideiak aurkezteko, ekitaldiak edo tailerrak iradokitzeke eta abar. Hasierako proposamena zen herrietako pertsonak adieraztea zer zen interesgarria egiteko, Añana, bizitzeko eta lan egiteko erakargarriagoa izan dadin. Dinamizazio saioak egin dira, gobernantza ereduak proposatzeko. Lurraldearen beharrak aztertuta, eskola mugikorra izatea proposatu zuten.

Proiektu honen xedea da herritarrak ahalduntzea, lurraldean aldaketak egiteko, lurraldea hobetzeko, han bizitzeko zein lan egiteko. Hasteko, gida bat egin zuten, edozein udalerrik mota horretako eskola bat abian jar zezan. Gida horrek, Gasteizen 2016. urtean abian jarritako eskola irekiko esperientzian oinarritzen da.

Lehen zirriborroan jarduera adar hauek ezarri ziren eskola irekia sortzeko:

- 1) Gizarte prestakuntza: Bilerak, gatazken kudeaketa.
- 2) Indartze sozio-komunitarioa: Pertsonak bere inguruarekin bat etortzea.
- 3) Lurraldea ezagutzea: Erakundea eta ingurua.

Proiektua honek kuadrillaren eta udalen laguntza izan du hasieratik, izan ere, eragin positiboa izan dezake eskualdean.

Proiektuak bi talde ditu. Alde batetik, talde bultzatzailea, teknikariek eta politikariek osatzen dutena. Bestetik, talde sustatzailea dago, herritarrek eta teknikariek osatzen dutena.

Hemendik ikastaroen lehen plangintza sortu zen.

- Proiektuekin lan egitea, ideiak sortzea.
- Jarduerak herri arteko kuadrillan.
-

Proposatutako ekintzak 5 saiotan lantzen dira, eta gero, AÑANako gizarteari proposatzen zaizkio.



Saio bakoitzean zenbait gertaera bete behar dira, ekintzak, eta hurrengo saioan aurkitu diren zailtasunak edo nola aurre egin ahal zaien azaldu behar da. Prozesuak zati praktikoa eta prestatzekoa ditu.

Kontzejuek, udalerrriaren azpiko lurralde esparruko erakundeak direnek, nortasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna dute. Horrez gain, erabateko autonomia dute beren interesak eta oinarritzat hartzen dituzten taldeenak kudeatzeko. Funtsezkoak dira landa inguruneetan, parte hartzeko eremu gisa.

Guztira, 32 eragile daude, elkarte, talde politiko, udaletako teknikari eta oro har herritarren ordezkari gisa aktiboki parte hartu zutenak.

19.3 Balio bereizgarria

Lurraldea indartu nahi da, pertsonak ahaldunduz, entzunez, eta erkidego aktiboa eginez.

Herritarrak dira beti eskola sortzen dutenak eta zer egingo den erabakitzen dutenak. Horrez gain, lehen aldia da udalerrri guztiekin erkidegoan lan egiten dena.

Hori guztia "Learning by doing" metodologiari jarraituz.

19.4 Erantzuten dien erronkak

Euskal gizartean balio publikoa sortzeko parte-hartze eta lankidetzak kultura sustatzea, lankidetzako trebetasunetan gaituta. Hori, ekintza hauen bidez egingo da:

- Prestatuz.
- Gaituz.
- Eztabaidatuz.
- Hitzaldien bidez.

Bestalde, gizarte kohesioa hobetu eta gizarte harremanak indartu nahi dira. Helburu bera lortzea, proposatutako hiru erronken arabera, eta inguruko herritarren bizi kalitatea hobetzea.



19.5 Alderdi berritzaileak

Eskola irekiko eredu bat sortzea, udalerrien arteko distantzia handia den lurralde batean. Gainera, biztanleen batez besteko adina altua da, eta despopulazioa konpondu beharreko erronka da.

19.6 Eskalagarritasuna

Herritarren eskola irekiko euskal eredu bat sortzea, beste eskualde edo udalerrri batzuetarako erreferentzia gisa balio duena.

19.7 Finantzaketa

Proiektuaren finantzaketa Arabako Foru Aldundia da. Hauek dira proiektuaren kostu nagusiak:

- Ardura eta idazkaritza teknikoa.
- Prestakuntza.
- Tokialdaketak.

19.8 Erakunde laguntzaileak

- Innobasque
- Eusko Jaurlaritza
- Arabako Foru Aldundia
- Gipuzkoako Foru Aldundia
- Bizkaiko Foru Aldundia
- Gasteizko Udala (hiru hiriburu)
- Bikonsulting
- Gadamer

19.9 Emaitzak/eragina

Talde eragilea:12 pertsona inguru
Saiotara bertaratutakoak:..... 32 pertsona inguru
Udaletako osoko bilkuretan parte hartutako udalerrriak: 10 udalerrri



20. BERRIKUNTZAKO HEZKUNTZA KOMUNITATEAK

Sailkapena:	Prestakuntza
Harremanetan jartzeko pertsona:	Félix Sáenz de Ugarte
Kargua:	Sustatzailea
Web orria:	http://www.urkide.org/colegio/innovacion3/

20.1 Ekimenaren deskribapena

Gizartearen eta hura aldatu nahi duen hezkuntzaren beharrei erreparatzen dien proiektua da. Ekintzak sistematizatzen ditu ikasleekin berrikuntza sustatzeko, geroago gizartera eramango baitute. Horrela, ekintza horiek hasieratik familiengan eta hezkuntza erkidego osoan eragitea lortzen da. Aldaketa metodologiko bat errazten du, eskolak beste modu batera emateaz gain, motibazio handiagoa ere ekartzen du, curriculumeneko arloetara eta saileko lanera eramaten dena.

Egiten diren jarduera guztiak urteko programazioan barne hartzen dira, zeharka, eta horietako asko, curriculumean gehien jasotzen direnak, gelako programazioetan ere barne hartzen dira. Horrez gain, esperientzia osoa online ikastaroaren liburutegi digitalean barne hartzen da, zentroko langileen eta interesa duten pertsona eta erakunde guztien eskura dagoena.

Funtsezko hiru zati ditu proiektuak:

- **RECRÉATE:** Helburua da ziurtatzea gure ikastetxeko ikasle guztiek beren sormena garatzeko beharrezkoak diren gaitasun eta tresna guztiak bereganatzen dituztela. Tresna horiek ez dira gelako jarduerak bakarrik, ikasgaietan lantzekoak, edo sormena sustatzeko teknika zehatzak. Aurretiko dinamikak ere barne hartzen ditu, giro egokia sortzen eta parte hartzaileek guztientzat berdinak diren funtzionatze arauak beren gain hartzen laguntzen dutenak. "RECREA" zatiak teknikak, lan egin aurreko alderdiak eta sormenaren berariazko arauak mailen arabera antolatu eta banatzen ditu. Arrakasta handia izan du ikastetxean bertan, antzeko proiektuak ezartzeko oinarri moduan balio dezan.
- **AULAS PERMEABLES (GELA IREKIAK):** Gure ikasleek askotariko esperientziez gozatzea da gure helburua, beren ikuspegiak alda ditzaten, eta beste errealitate batzuei errepara diezaieten. Horrela, errazagoa izango da bere sormena azalartzea eta ideia berriak jasotzea.



Programazioan jasotzen diren eta urtero egiten diren jarduerak dira, RECRÉATE proiektuarekin koordinatuta. Familiak, hornitzaileak, ekarpenak dituzten lagunek laguntzen dute. Sukaldariek, kimikariek, artistek, biodantzan adituek, zeinu hizkuntzan adituek eta bestelakoek parte hartzen dute.

